





eraldaketarako aldizkari politikoa
2020ko uztaila / www.erria.eus



CVD-20"/¿?
KULTUR.//

**Ez naiz ari aldatu ezin
ditudan gauzak onartzen,**
onartu ezin ditudan
gauzak aldatzen ari naiz

Angela Davis



Amtsk_NON?
 Amtsk_NON?
 Amtsk_NON?
 Amtsk_NON?
 Amtsk_NON?



CoVD: 20_NON?



07 EDITORIALA
Krisiari aurre egiteko
politika publikoak

14 SAKONEAN
GARBIÑE ARANBURU IRAZUSTA
LAB-eko idazkari nagusia

“Ikuspegi eraldatzaitetik, politika publikoak aldatzeko eta horretan eragiteko bokazioa izan behar dugu”

40 SINADURA UMS
Retos y riesgos de la Inteligencia Artificial

52 ERREPORTAJEA Pello Otxandiano Kanpo
Euskara bidegurutzean.
Berritze ideologikorako gakoak

10 TXIO-TXIOKA

28 SINADURA Larraitz Ugarte
EUSKAL ERREPUBLIKAREN BEHARRA
inoiz baino agerikoago

34 SINADURA Argitxu Etxandi
Herriko Etxeak eta Ipar Euskal Herriko instituzioa: biharko eszenatoki posibleen inguruko gogoeta bat

46 SINADURA Julen Arzuaga
Salud-seguridad-libertad: el autoritarismo amable

58 ERREPORTAJEA Kepa Petralanda eta Naike Diez
Konfinamendua
kaiola barruan

DOSIERRA: KRISIARI AURRE EGITEKO POLITIKA PUBLIKOAK

64 ELKARRIZKETA
AIZPEA OTAEGI
“Zenbat eta herrigintza tenkatzaileagoa, orduan eta politika hobeak”

Beñat Irasuegi Ibarra eta
Erik Gartzia Egaña

76 SINADURA
Por una intervención activa del Estado en la economía

Isidro Esnaola

86 SINADURA
Zaldibar, zaborteak eta ekonomia zirkularra

Mikel Otero

96 **La guerra cultural** de la extrema derecha
Miquel Ramos.

106 **NORMAL BERRIA**
Garazi Goia.


AMTSK_ Non geratu dira nire ametsak?
Izarrak bildu beharko ditut berriz. Oier Zuñiga.

114 ENTREVISTA
PASTORA FILIGRANA
Abogada y activista por los derechos humanos.

124 ERREPORTAJEA
GOBERNUGINTZA DESBERDIN BATERAKO ABIAPUNTUA?
Elena Beloki.

132 INFOGRAFIA
Z U L O B E L T Z A K

134 GOMENDIOAK



Pandemiatik harago

Covid-19 bezala ezagutzen dugun birusak mundua hankaz gora jarri du, mundua ia erabateko itxialdi eta geldialdira eramanez. Eta paradoxikoki bada ere, geldialdi horretan, hainbat gertakari azeleratu egin dira. 2008ko burbuila finantzieroak ekarri zuen krisi ekonomiko, sozial eta ekologikoak azken hamarkadatarako tendentzia batzuen eztanda izan ziren: ongizate estatuaren pribatizazioa, herritarren erabakitze ahalmen eta eskubidearen ukazioa, publikoaren pribatizazio eskalatua, eta finean, eskubide sozial eta politikoen murrizketa. Covid-19aren testuinguruan aurreko tendentziak azkartu egin zaizkigu.

Eskuartearen duzun aleak tendentzia horiek mahaigaineratu eta aztertzen saiatzen da, beti ere, analisi politikoa begirada luzearekin uztartuz. Pandemiaren gogorrenetik aterata, galdera batzuk pausatu eta perspektiba pixka batekin erantzuteko momentua zela iruditu zitzaigun: beste era batera kudeatu ote zitekeen krisi hau? Zein irakaspen global eta lokal uzten dizkigu krisi honek? Zeintzuk dira indartuta ateratzen diren tendentzia eta irakurketak? Mundura aldaketa sakonik al dator? Nola kudeatu pandemiak azeleratu duen askatasunaren eta segurtasunaren arteko teinka? Gure hizkuntzaren eta kulturaren zaurgarritasuna zenbaterainokoa dela erakutsi digu pandemiak? Nola izan da konfinamendua kartzeletan? Eskuin muturra balio eta ideien gerra kulturaletik indartuta atera ote da? Zeintzuk dira aurrera begirako ezkerren erronkak? Galdera hauei eta beste batzuei erantzuten saiatu gara.

Garbiñe Aranburu LABeko idazkari nagusiak elkarrizketa mamitsu batean konfinamenduaren testuinguru sozial eta politikoa, eliteek hartutako erabakiak eta eredu ekonomiko eta sozial hegemonikoaren hauskortasuna analizatzen ditu, marko propio baten aldarrikapena inoiz baino beharrezkoa dela gogoratuz. Larraitx Ugartek, ildo beretik, Euskal Errepublikaren beharra inoiz baino agerikoagoa dela azpimarratzen du, independentismo arrazional eta emozional baten alde eginez. Ideia berarekin irakur daiteke Elena Belokiren estatuaren berretoreraren analisia, gobernugintza desberdin baterako aukera leihoak aztertuz. Pandemiak eragindako azelerazio horretan beste hainbat tentsio eta zaurgarritasun agertu dira. Esaterako, Julen Arzuagak askatasunaren eta segurtasunaren tentsioa aztertu du, ezinbesteko galdera batzuk airean utziz.

Bestalde, pandemiak herri bezala ditugun bi zapalkuntza eta zaurgarritasun mota indartu ditu: gure hizkuntzarena, Pello Otxandianok analizatua, eta kartzeletan konfinamenduak eragindakoa, Kepa Petralanda eta Naike Diezek ekarria. Notizia onak ere egon dira tartean. Argitxu Etxandik azken orduko Ipar Euskal Herriko hauteskunde emaitza bikainetatik abiatuz biharko eszenatoki posibleen inguruan gogoetatu du. Eszenatokietatik proposamenetara, dossierrean krisiari aurre egiteko politika publikoetan zentratu nahi izan gara: batetik, Ooreretako alkatea den Aizpea Otaegi Mitxelena elkarrizketatu dugu, eta artikulazio publiko komunitarioaren aldeko apustua berretsi du; bigarrenik, Isidro Esnaolak egungo politika ekonomikoaren gabeziak utzi ditu agerian, publikotasuna eta zaintza uztartu behar direla aldarrikatuz; eta azkenik, Mikel Oterok Zaldibarko zabortegiko kasutik abiatuta erronka ekologiko larriez mintzatu zaigu. Ezin dugu aipatu gabe utzi enpresa handiek pandemian izan dituzten etekinak, infografia bat merezi zutenak.

Alearekin bukatzeko, ohiko gomendio eta txioez gain, erreportaje, elkarrizketa eta artikulatu mamitsuak ekarri ditugu, beste tendentzia eta erronka garrantzitsu batzuk analizatze aldera. Batetik, Miquel Ramosek pandemian gogortu den eskuin muturraren gerra kulturalaren analisia egiten du. Horrekin baetra, ezin da ahaztu AEBen eta Txinaren arteko gerra digitala izan dugula tartean, eta, hortaz, inteligentzia artifizialaren etorkizuneko erronkak kontuan hartu beharko direla ere. Beste artikulatu batean, Garazi Goiak normaltasun berriaren kritikatik abiatuz, ikusentzunezko sektoreari begirada zorrotz bat dakar. Eta bukatzeko, Pastora Filigrana abokatu eta militante ijito eta feministaren elkarrizketa mamitsu bat topatuko duzue, ezkerren erronka global eta lokalei buruz mintzatzen.

Finean, ahal dela, pandemiaren zurrunbilotik atera nahi izan dugu, irakurleari analisi pausatua eta begirada luzekoa eskaini asmoz. Lortu ala ez, gustuko baduzue, zabaldu, kritikatu, partekatu eta on egin!

Más allá de la pandemia

El virus conocido como covid-19 ha puesto patas arriba al mundo, llevándolo al cierre y detención parcial. Paradójicamente en esa parada se han acelerado los acontecimientos. La crisis económica, social y ecológica que trajo la burbuja financiera de 2008 fue la culminación de varias tendencias de los pasados años: la privatización del estado de bienestar, la negación del derecho y la capacidad de decidir de los ciudadanos, la privatización escalada de lo público, y al fin y al cabo, la reducción de los derechos sociales y políticos. En el contexto del covid-19 estas tendencias se han acelerado.

La revista que tienes entre manos intenta poner encima de la mesa y analizar esas tendencias, siempre intentando compaginar el análisis político con una mirada reflexiva. Una vez salidos de lo más duro de la pandemia, creemos que es el momento de preguntarnos con perspectiva las siguientes preguntas: ¿se pudo haber gestionado la crisis de otra forma? ¿Cuales son las tendencias y lecturas que salen fortalecidas? ¿Vienen cambios profundos al mundo? ¿Como gestionamos la tensión entre libertad y seguridad que la pandemia ha acelerado? ¿Hasta donde llega la vulnerabilidad de nuestra cultura e idioma? ¿Como ha sido el confinamiento en las cárceles? ¿Ha salido reforzada la ultraderecha en la guerra cultural por las ideas y valores? ¿Cuales son los retos de la izquierda al futuro? Hemos intentado responder a estas y otras preguntas.

En una extensa entrevista a la secretaria general de LAB Garbiñe Aranburu nos habla sobre el contexto social y político del confinamiento, las decisiones tomadas por las elites y la fragilidad del sistema económico y social hegemónico, recordando la necesidad de un marco propio. Larraitz Ugarte, en el mismo sentido, subraya la necesidad de una Republica Vasca, proponiendo un independentismo racional y emocional. En esa misma línea se puede leer el artículo de Elena Beloki sobre la vuelta del estado, que analiza las posibilidades para otras formas de gobernar. En esa aceleración provocada por la pandemia han aparecido tensiones y vulnerabilidades. Por ejemplo, Julen Arzuaga analiza la tensión entre la libertad y la seguridad, planteando preguntas apremiantes.

Por otro lado, la pandemia ha reforzado vulnerabilidades y opresiones que vive nuestro pueblo: la del idioma, analizado por Pello Otxandiano; y la de las cárceles, por Kepa Petralanda y Naike Diez. También ha habido noticias buenas. Argitxu Etxandi analiza los resultados excelentes de las elecciones de Ipar Euskal Herria para pensar en posibles escenarios del futuro. De escenarios a propuestas, hemos querido centrarnos en el dossier en las políticas públicas para hacer frente a la crisis: por un lado, la entrevista a la alcaldesa de Orereta Aizpea Otaegi refuerza la apuesta por la articulación comunitaria pública; en segundo lugar, Isidro Esnaola deja al descubierto las carencias de las políticas económicas de ahora, reivindicando la necesidad de unir lo público con los cuidados; y en último lugar, Mikel Otero ha partido del problema del vertedero de Zaldibar para hablarnos sobre los retos apremiantes ecológicos. No podemos dejar de mencionar las ganancias de las grandes empresas en la pandemia, merecedoras de una infografía.

Aparte de los tweets y las recomendaciones, traemos un reportaje, una entrevista y un artículo de peso, con el objetivo de analizar otras tendencias y retos importantes. Por un lado, Miquel Ramos nos habla sobre la guerra cultural de la ultraderecha que se ha acentuado en la pandemia. En segundo lugar, Garazi Goia nos habla sobre la nueva normalidad, y en concreto, sobre los retos del sector audiovisual. Y, para terminar, traemos una entrevista a la abogada y militante feminista y gitana Pastora Filigrana, sobre los retos globales y locales de la izquierda.

Para terminar, hay que decir que hemos intentado salir del ruido de la pandemia, intentando ofrecer al lector análisis pausados y de largo alcance. Si lo hemos conseguido o no, si os parece, divulgar lo escrito, criticarlo, compartirlo y ¡buen provecho!

Au-delà pandémie

Le virus Covid-19 a bouleversé le monde, jusqu'au point de le confiner et de le paralyser. Paradoxalement, pendant cet arrêt certains événements se sont accélérés. La bulle spéculative de 2008 avait provoqué une crise économique, sociale et écologique sans précédent. Elle avait mis en évidence les conséquences des logiques aboutissant à la déconstruction de l'État providence, à la dépossession de la capacité de décider des citoyens, à l'escalade de la privatisation du public et à la réduction drastique des droits sociaux et politiques. Pendant la crise du Covid-19, nous avons assisté à l'accélération de ces tendances.

L'exemplaire que vous avez entre vos mains vise à analyser ces tendances et leurs conséquences sur le long terme. Une fois que nous sommes sortis du moment le plus critique de la pandémie, il nous est paru judicieux de nous poser les questions suivantes : la crise aurait-elle pu être traitée différemment? Quelles sont les logiques et les lectures qui ont été renforcées? Des changements profonds sont-ils à venir dans le monde ? Comment gérer la tension entre liberté et sécurité que la pandémie a accrue? Quel est le degré de vulnérabilité de notre culture et de notre langue? Comment s'est déroulé le confinement dans les prisons? L'extrême droite est-elle sortie renforcée de cette nouvelle bataille idéologique et culturelle? Quels sont les défis de la gauche? Nous avons essayé de répondre à ces questions parmi d'autres.

Dans un entretien, la secrétaire générale de LAB, Garbiñe Aranburu, analyse le contexte social et politique de la période du confinement, les décisions prises par les élites et la fragilité du système économique et social hégémonique, rappelant la nécessité d'un cadre adapté à la réalité du Pays basque. Larraitz Ugarte, dans le même sens, souligne l'acuité d'une République basque. Pour ce faire, elle se dit favorable à un indépendantisme rationnel et émotionnel. Dans la même veine, vous pouvez lire l'article d'Elena Beloki sur le retour de l'État, qui traite également des différentes modalités de gouvernances.

Des tensions et des vulnérabilités sont apparues pendant l'accélération pandémique. Par exemple, Julen Arzuaga analyse la tension entre liberté et sécurité, soulevant des questions pressantes.

D'autre part, la pandémie a renforcé la vulnérabilité de notre peuple et la double oppression qu'elle subit : celle concernant la langue est analysée par Pello Otxandiano; et celle qui touche aux prisons est abordée par Kepa Petralanda et Naike Diez. Il y a eu aussi eu de bonnes nouvelles. Argitxu Etxandi analyse les excellents résultats des élections d'Ipar Euskal Herria, et réfléchit à d'éventuels scénarios d'avenir. Des scénarios aux propositions, nous avons voulu nous concentrer sur les politiques publiques nécessaires pour faire face à la crise : d'une part, dans un entretien le maire d'Orereta Aizpea Otaegi relève l'importance de l'articulation entre le public et le communautaire ; par ailleurs, Isidro Esnaola expose les lacunes des politiques économiques en vigueur, affirmant la nécessité de développer une approche publique des services à la personne; enfin, Mikel Otero traite les événements de la décharge de Zaldibar pour nous parler des défis écologiques pressants. Nous proposons également une infographie qui met en lumière les bénéfices réalisés par les grandes entreprises pendant la pandémie.

Outre les tweets et les recommandations, nous proposons un rapport, une interview et un article supplémentaire, dans le but d'analyser d'autres tendances et défis importants. D'une part, Miquel Ramos parle de la guerre culturelle de l'extrême droite accentuée par la pandémie. D'autre part, Garazi Goia parle de la nouvelle normalité, et en particulier des défis du secteur audiovisuel. Et, enfin, nous vous proposons un entretien avec l'avocate féministe et militante gitane Pastora Filigrana, sur les défis mondiaux et locaux de la gauche.

Avec ce nouvel exemplaire, nous avons souhaité briser la chape de plomb instaurée par la pandémie, en essayant d'offrir au lecteur des analyses à long terme. Que nous l'ayons atteint ou pas, si le contenu de cette revue vous semble intéressant, faites comme bon vous semble, divulguez-le, critiquez-le, et partagez-le. Bonne lecture !

ERRIA 5

28

14



34



40



46



D1
64



2



58




D2
76



D3
86



96



106



114



124



132

TXIO-TXIOKA

2020

Atal honetan azken hilabeteetan gertatutakoen nolabaiteko bilduma bat aurkituko duzu, motzean. Umorea, satira, salaketa, aldarrikapenak...

Azpirarratzekoak dira, besteak beste, Zaldibarko zabortegiko hondamendia, koronabirusaren pandemiak eragin dituenak, Jose Luis Zumeta artistaren heriotza, biolentziari buruzko eztabaida zahar/berriak, Ipar Euskal Herriko hauteskundeetako emaitza bikainak... eta askoz gehiago.



Amis kabyles, aujourd'hui une nation camarade célèbre sa fête nationale, l'[#AberriEguna](#) du peuple basque. En ces conditions particulières, toutes et tous ont accroché une ikurriña (🇪🇺) à leur balcon et ont chanté à l'unisson à 12.30, au rythme des radios.

[#EuskalHerriaBatera](#)

Traducir Tweet



Protesta ez arautua biolentzia gisa eta biolentzia arautua normalitate demokratiko gisa ulertzean sortzen da arazoa

El problema surge cuando los q interpretan la protesta no reglada como violencia son los mismos q interpretan la violencia reglada como normalidad democrática.



HEGO Euskal Herria. Esan ezazue 'Hego Euskal Herria', Hego Euskal Herriaz ari zaretenean. 'Euskal Herria' esaten duzuenean Hego Euskal Herriaz ari zekete Euskal Herria txikitzen duzue, besteak beste, geografikoki.
[#EzDaHainZaila](#)
[#Hegozentrismoa](#)
[#GeroKantatuEberakBadituzu](#)



Pues no, todo el mundo no sabe que pasó. Merecemos saber la verdad, esa es la reparación que merecemos las víctimas de la guerra sucia.

n: [naiz](#): @naiz_info · 18/6/20
Unidas Podemos no apoyará investigar a Felipe González porque «todo el mundo sabe lo que pasó» y podría «distrar» [naiz.eus/es/actualidad/...](#)



NB @inegukobaratza · 3d
EAeko Kantabrizako aurrera darrai.



Oihana Bartra @OihanaBartra · 16/04/2020
Orain erostekak egiten dituzuen gizonak: zenbat aldiz garbitu duzue komuna?



Felipe González dio el visto bueno a la creación del GAL, la Guardia Civil elabora informes falsos y el Borbón cobraba comisiones que ingresaba en Suiza. La de noticias sorprendentes e inesperadas que estamos recibiendo.

n: [naiz](#): @naiz_info · 14/6/20

Papeles desclasificados de la CIA confirman que González dio su aprobación para crear los GAL [naiz.eus/eu/actualidad/...](#)



Jokin Bergara @JokinBergara

Eibarko sozialismoaren bilakaera ere adierazten du Zaldibarrek. Errepublikak aldarrikatetik katastrofe ekosozial baten erantzule zuzena izatera. Langile borrokatik kudeaketa klientelista mafiosora. Toribio Etxebarriak burua altxako balu...

TXIO-TXIOKA



Mikel Otero
@otero_mikel

Me ha impresionado esta foto.
Palas de molinos de viento enterradas porque es más barato que reciclarlas.
Al hablar de energía renovable y economía circular, no olvidar que esto, aunque el "combustible" (viento) sea renovable, no es sostenible.



Pello Igeregi
@PelloIgeregi

Gaur Portugalgo Krabelinen Iraultzaren urteurrena ospatzen ari gara. Elementu asko oroitu eta azpimarratuko ditugu, baina ziurrenik gurean inork ez du aipatuko Portugalgo Alderdi Komunistak 60 eta 70. hamarkadetan polizia eta ejertzitoan izan zuen estrategiaren garrantzia.



Pastori Filigrana
@PastoriFiligrana

Durante el estado de alarma todxs hemos sido inmigrantes y gitanos en el espacio público.

Hemos sido sospechosxs hasta que hemos enseñado a la policía "los papeles".

Sirva la experiencia para empatizar con quienes viven cada día en un "estado de alarma"



LA FURIA
@LaFuriaRap


En mi puta vida he seguido a nadie que hiciera alarde de la banderita de España y no lo voy a hacer ahora porque se os haya ocurrido la brillante idea de reapropiársela. No te puedes re apropiarse de algo que nunca te perteneció. Agur.



Aitziber Garmendia
@AitziGarmendia

Ze erraz esaten den "berrogeialdi" balkoi edo terraza batetik. Leiho ertzean, zatikako fotosintesia egiten ikusi nahi nituzke sare sozialetan bularra puxtuta dabiltzan terrazadun SuperBakean Nago Nire Buruarekin eta Orain Pertsona Hobea Naiz espezie horietako batzuk. #HorrelaNikEreBai

Traducir Tweet



Bilgune Feminista
@bilgune_feminista

Ez konfinamenduan ez inoliz
LESBOFOBIAK EZ!
#apirilak26
#ikusgarritasunlesbikoa

Translate Tweet



Lesbofobia ez!
#apirilak26
#ikusgarritasunlesbikoa



Ane Labaka Mayo
@anepirata

Kultura oso garrantzitsua da eta babesten saiatuko...
DONA DONA KATONA...
mobile.twitter.com/naiz_info/stat...

Translate Tweet

naiz: @naiz_info · 11/05/2020
Lakua asignará por sorteo las ayudas extraordinarias a creadores naiz.eus/en/actualidad/...



Maria Garde
@mariagardee

ADIRIK EZ! 🌱 BATERA
Auzoan elkartuko gara...

Zaramagan, auzoko komertzio txikiak zaindu, babestu eta indartzeko dinamika berria abiatuko dugu, animatu eta parte hartu!

#ZainduGaitzen

#Batera

Traducir Tweet



Galder Gonzalez
@theklaneh

Yo también voy a hacer autocrítica. Las cosas pueden mejorar, sin embargo yo soy el puto amo, máquina, titán. El As de la baraja, 31 de mano al mus, imprescindible, inmejorable.

Translate Tweet



Markel Olano Arrese
@MarkelOlano

Ante la cifra de fallecimientos por #COVID19, es difícil no hacer autocrítica. Nuestra actitud siempre será la de la mejora permanente. Sin embargo, debemos reconocer que nuestro sistema socio-sanitario ha reaccionado de manera eficaz, modelo de colaboración fuerte y singular.

Translate Tweet



le frère
@Lfrre · 09/02/2020

Cuando cierras mal el jamón de York y se reseca la primera loncha





An Do Ning, líder supremo comunista, siempre con la clase obrera vasca.
#1deMayo #Maiztak1 #DiaDelTrabajo #WorkersDay

Translate Tweet



#Domeka on!!!



jon garmendia
@txuriya

Ziburura iheslari antiz etorri da hamarkada luzeotan, bizi borrokan aitzina egiteko beti.
Gaur, haietako bazen semea, Eneko Aldana, Ziburuko auzapez bihurtu da gehiengo absolutua lortuta.
Justizia poetikoa haxe da.

Translate Tweet



Amets
@amettts

Gaur 22 urte ditut eta ume bat naiz, dioten moduan.

Baina 22 urte hauetan, zakil bat sartu didate ahoan lo nengoenean, muxu eman didate nahi ez nuenean, nire gorputza ikutu eta erabili nahi zuten moduan nire baimenik gabe.



Pastori Filigrana @PastoriFiligran · 02/06/2020

Las mujeres gitanas alcanzan una representación en las cárceles españolas que puede ser hasta 20 veces superior a su presencia en la sociedad.
Esta sobre-representación supera a la de la población negra en EEUU o la aborigen en Australia.

Esta es la #violenciaraquista



uiturriaga
@uiturriaga

Gernika atzo eta gaur naiz.eus/eu/iritzia/zug...

Translate Tweet



mario zubiaga @zuribia · 03/06/2020

IDEOLOGIA, letra larri. Zehatzago esanda: IDEOLOGIA NEOLIBERALA. Uneak eskatzen duen moduan, pribatua publikatzea baino, publikoa logika pribatuaren menpe jartzea. Etsaia, noski, funtzionario publiko omen "bizkarroia". En fin, twitter.com/berria/status/...

Berria.eus @berria · 03/06/2020

Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko «arrakatz» jardun du ifrigo Urkulluk: «Gerrikoa estutu beharra? Langile publikoak bere lanpostua eta soldata ziurtatuta dauka»
@olano_urkia
berria.eus/albisteak/1822...



Miquel Ramos @Miquel_R · 06/06/2020

Pensar que las luchas de colectivos históricamente sometidos a específicas discriminaciones estructurales son caprichitos o modas posmodernas es una excusa para esconder la incapacidad de cierta izquierda para justificar su ausencia en estas luchas o su menosprecio histórico.



irati
@irati

Ezker zein eskuin, espainolek Euskal Herriari buruz hitz egiten dutenean ahoa beroak izaten dira, burua urdailean izaten dute, bihotza hotz.
#AntonioAlvarezSolis-ek ez gintuen sekula saldu, ez abandonatu.
Bergamin kolosalaren genealogietatik zetorren eta hori beti eskertuko diogu



iker bizkar
@GARA_ikerbizkar

Les ha faltado relato, pero jeta tienen para llenar dos vertederos.

ifrigo Urkullu

"Hago autocritica porque nos ha faltado un relato desde el primer día sobre Zaldibar por esperar a tener información veraz"



Alex Txikon
@AlexTxikon

Gaur ospatuteko eguna da, 40. urteurrena Martin Zabaleta ta Pasang Tembaren tontorraz.
Herri oso baten lorpena.

Hoy es un día para el recuerdo. 40 aniversario de la ascension al Everest por Martin Zabaleta y Pasang Temba.

Translate Tweet



Carles Puigdemont @KRLS · 29/05/2020

Es una denuncia molt greu i que hauria de tenir conseqüències. Un testimoni reconeix Pérez de los Cobos entre els qui el van torturar. Em temo, però, que no passarà res. Tristament, Espanya és un país on els torturadors se'n van a la tomba amb les medalles i els honors intactes.

VilaWeb @VilaWeb · 29/05/2020

Un detingut per la Guàrdia Civil al 2004, que va denunciar tortures, explica a Berria que ha reconegut Die les Cobos, en veure'l ara per televisió vilaweb.cat/noticies/pello...



Anita Lopepe
@a_lopepe

Kriston garaipena Enekoentzat, Ziburuko Bizirentzat, Zibururentzat, Euskal Herriarentzat!! Biba!! @Ziburu2

Translate Tweet



Goizeder Taberna @Taberna_G-1d

Eneko Aldana ovationné à la sortie de l'hôtel de ville de Ciboure



TXIO-TXIOKA 2020

Haritz Aranburu @AranburuHaritz · 23/05/2020
 Qué valiente Pepe Reina que se posiciona y puto Guardiola que mezcla fútbol y política.

#ElVirusSoisVosotros #PerolaCoherenciaNo

Oihana Etxebarrieta @BeturkoMorea
 ¿Os lo dije? Esan ahaliko du @OihanaBartra.k orain?

Translate Tweet

Más hombres haciendo la compra pero más carga de cuidados sobre las mujeres: la pandemia refuerza...
 eldiario.es

Galder Gonzalez @theklaneh · 22/05/2020
 Se refiere a Argala, el que estuvo en Txiberta con Telesforo Monzón (que, como todos sabemos, era un curuleo de Tubos Reunidos).

RSF Anonymous @RSFAnonymous · 22/05/2020
 Me hace mucha gracia cuando mutila una frase de Jose Miel Beñaran "Argala" (sin ni siquiera citarle). Si el propio Argala vería lo que han hecho y a que ha evolucionado la Izquierda Abertzale... Hasta gente más moderada ideológicamente de ETA ha roto con esta "izquierda"

Show this thread

TESSA ANDONEGI @tessando
 Ekoizten diren produktu guztien lan-baldintzak duinak ez badira, hemendik urte batzutura eskandalizatu egingo gara hemen profesionalik ez dagoelako. Beranduegi.

Kattalin Miner @MKattalin · 22/05/2020
 Ni en el mejor de los bolldramas poliamorosos me han dado jamás un titular así.

ETB @euskaltelebista · 22/05/2020

#VIDEO @andoniortuzar: "No tenemos celos de EH Bildu, pero pedimos la misma dulzura en el Parlamento Vasco"
 eitb.eus/television/...

@ehbildu @PODEMOS @PSOE @sanchezcastejon @Xilapitz #enj...

iker bizkar @GARA_ikerbizkar

#PepaFlores junto a Antonio Gades, Periko Solabarria y José Luis Elkoro en el homenaje a Pakito Arriaran en Arrasate. #Goya2020



Mortadela @Mortadela · 17/05/2020
 Chomsky está a 15 días de pandemia de terminar su transformación en Gandalf.



Iraitz Lazkano @iraitzlazkano · 08/05/2020
 Kokoteraino.

Presazio izaera duenez, gaztelaniaz. Garrantzitsua denez, gaztelaniaz.

Informazio horren beharrik ez dugunean, orduantxe bidalko digute #euskara z.

@uema_eus
 @behatokia
 @kontseilua
 @Eledibe



Iñaki Egaña @inakiEgana · 26/04/2020
 Nuevamente contrainformación con la muerte de Txabi Etxebarrieta @EtxebarrietaME desde @elcorreop. ¿Siguen activos los fondos reservados? A Txabi Etxebarrieta lo ejecutaron. Publiquen de una vez por todas la autopsia y saldrán de dudas los que desconocen el tema



King Mob @KingMobBCN · 21/04/2020
 Las paredes del barrio son sabias



Iratzar Fundazioa @iratzarFundaz · 31/03/2020
 Alexandra Kollontai: [1872.03.31-1952.03.09] Militante komunista eta feminista izan zen. Historiako lehenengo emakume enbaxadorea izan zen. Iraultza Botxetxeen Petrogradoko Sobieteko kide hautatu zuten. @feminismoak @ehofeminista @MIEEuskalHerria



Pearljammer @Pearljammer · 26/03/2020
 - Hacemos una videollamada?
 - Ahora no puedo, estoy con un proyecto muy importante (?)




Ane Irazabal @AneIrazabal · 02/03/2020
 Ume bat itota hil da gaur #lesbos eko uren aurrean, 48 pertsona zeuden ontziaren barruan. Bitartean, Greziako gobernuak iragarri du itsasoan eragiketa militarak hasiko dituela. Ze izen jarriko diogu honi?

JJ Agirre @Ortubekoa

Joxe Azurmendik:
 «Euskal Herria nazio puskatua da, hizkuntza galdua, foruak galduak, tradizioak galduak. Nazioa berregin beharra daukagu. Eta berregiteko zeregin horretan, ezinbestekoa, berriro, euskararen indarbertitzea da; zeren bera baita komunitate nazional baten ardatz».

Translate Tweet



Iban Zaldúa @IbanZ

"Derecho a decidir limitado al marco vigente". Me meo.

Lander @Landerlandia · 27/05/2020
 El padre de Pablo Iglesias fue detenido en 1973 vinculado a la organización política armada FRAP. No me pongan ahora cara de asombro con estas declaraciones de la portavoz del PP, se ajustan al relato oficial ("Pardines víctima / Etxebarrieta terrorista") que defiende el gobierno

EL PAÍS @el_pais · 27/05/2020

Tv en Directo | Álvarez de Toledo, a Iglesias: "Usted es hijo de un terrorista, a esa aristocracia pertenece, a la del crimen político" bit.ly/3ggUVgM



hijos, por eso se lo voy a decir por primera y última vez, Ud. es el hijo de un terrorista, a

TESTUA: ERRIA
ARGAZKIAK: FOKU

SAKONEAN

GARBIÑE
ARANBURU
IRAZUSTA

LAB-EKO IDAZKARI NAGUSIA



“IKUSPEGI ERALDATZAIETIK, POLITIKA PUBLIKOAK ALDATZEKO

eta horretan eragiteko bokazioa izan behar dugu”

2020ko urtarrilaren 30ean Euskal Herrian greba orokorra egin genuen, zortzi urteren ostean. Aurrekoetan ez bezala, ez zen erreformen kontra egindako mobilizazioa izan. Pentsiodunen mugimenduak eta mugimendu feministak bildutako indarra kapitalizatuz, prekarietatearen kontrako eta burujabetzaren aldeko artikulazio zabala gauzatu zen, klabe ofentsiboan borroka fase berri bat iragarritz. Ondoren, Zaldibarko krisia eta koronabirusaren krisia etorri dira. Garbiñe Aranburu Irazusta LAB sindikatuko idazkari nagusiak lan mundua zertan den eta krisi berri honi aurre nola egin beharko zaion azaldu digu.



Hitz baten nola definituko zen nuke koronabirusa lan arloan uzten ari den panorama?
Latza.

Krisi hau beste era batera kudeatu zitekeen?

Bai. Krisi hau krisi sistemiko baten baitan gertatu da. Aurretik ere sistema kapitalista hetero-patriarkal eta ekozida honen mugak begi bistakoak ziren. Euskal Herrian, gainera, greba orokor batetik gentozen, kapitalaren eta bizitzaren arteko eredu talka horretan, borroka klabe ofentsiboan jartzeko ahalegine-tik. Horretan ginela iritsi da pandemia egoera.

Konfinamendua elite enpresarialen eta kapitalaren neurrira eraiki da. Kapitala/bizitza ereduaren arteko talka ageriago geratu da. Sindikatutik hasieratik bereizi ditugu zein diren konfinamenduan bizitzari eusteko oinarritzko lanak eta zein ez. Garbi zegoen hasierako momentu hartan lehentasuna koronabirusaren hedapenari mugak jartzea zela. Baina horretarako beharrezkoa zen oinarritzko lan horietan beharrezko babes neurriekin lan egin ahal izatea. Aldiz, ikusi dugu egoera batzuetan hori ez dela horrela izan. Osasungintzan, adineko egoitzetan, supermerkatuetan, anbulantzie-tan... langileek ez dituzte behar bezalako babes-neurriak izan. Birusaren hedapenean mugak jartzea zaildu du horrek, beraien lan osasuna arriskuan jarritz eta artatzen dituzten pertsonen osasuna ere arriskuan jarritz.

Jarduera horiek etetea eskatu izan dugu hasieratik baina beranduegi iritsi zen Madrilgo Gobernuaren aldetik, eta gutxiegi iraun du. Gainera EAEn nabarmen ikusi dugu nolako tandem osatzen duten EAJren Gobernuak eta patronalak. Nafarroan Maria Chiviteren Gobernuaren jarrera

ere antzerakoa izan da.

Krisi hau Estatuaren zentralizazioan urratsak emateko baliatu da hasieratik. Alarma egoera ezarri zenean Urkulluk esan zuen ez zituela hamar segundu ere gastatuko hori kritikatzeko. Baina aldiz enpresariengustukoa ez den neurri bat etorri denean, hamar segundu baino dezente gehiago pasa ditu Madrilgo erabakiak kritikatzeko eta baita kudeaketa batzuk egiten ere erabaki hori baldintzatzen.

“Konfinamendua elite enpresarialen eta kapitalaren neurrira eraiki da”

Bestalde, krisi honen ondorio ekonomiko eta sozialak jada ikusten hasi gara. Eta agerian utzi du aurretik eraiki den eredu ekonomiko eta sozial horren hauskortasuna. Bereiziki sistema publikoan, osasungintzan eta zaintzen arloan izandako pribatizazio- eta merkantilizazio-politiken, murrizketa-politiken eragina ikusi da. Lan mundua zein hauskorra den ere ikusi da. Dualizazioak enplegu-suntsiketa oso azkarra ekarri du.

2008ko krisiaz geroztik, Eusko Jaurlaritzaren alderaketa beti izan da hemen Espainian baino hobeto gaudela. Nafarroan UPNk garesti ordaindu zuen krisi ekonomikoaren kudeaketa eta ustelkeria. LABek urte hauetan guztietan zerbitzu publikoetan eman diren murrizketak salatatu ditu eta, lan eta erretireten erreformak bertan behera uztea eskatu du.

Erabaki horien faktura koronabirusak kobratu digu?

80ko hamarkadatik hona ari gara bizitzen erreforma eta murrizketak inposatu dituen oldarraldi neoliberal bat. Bai estatuetatik, baina baita bertako gobernuetatik ere. 2008ko krisia aitzakia perfektua izan da austerizazioaren bide horretan sakontzeko.

Testuinguru horretan eman dira zerbitzu publikoen murrizketak, pribatizazioak eta merkantilizazioa: lan-harremanetan sekulako prekarietatea bi lan erreformen bidez, sindikalgentzaren kontrako eraso bat, negoziazio kolektiborako eskubidea guztiz mugatuz eta estatalizazioaren aldeko apustua.

Emakumeon kasuan lan guztien aitortzarik edo zaintza lanen aitortzarik eza erantsi behar da. Beti egon da sexuaren araberrako lan-banaketa hori eta emakumeak lan-mundura inkorporatu dira balio sozial, ekonomiko eta politiko gutxiago ematen zaien lanetara, horrek dakarren prekarietatearekin eta soldata arrakalarekin.

Neurri batean, krisi honek ere balio izan du hainbat sinesmen neoliberal erortzeko. Nabarmena izan da estatu propio bat izatearen garrantzia eta beharra. Ikusi da sektore publiko indartsu bat izatearen garrantzia; merkatuari autoerregulatzen utzi behar zaionaren mitoa erori da. Alde

SAKONEAN
GARBINE
ARANBURU
IRAZUSTA

“Koronabirusak agerian utzi du aurretik eraiki den eredu ekonomiko eta sozial horren hauskortasuna”

“Ikusi da sektore publiko indartsu bat izatearen garrantzia; merkatuari autoerregulatzen utzi behar zaionaren mitoa erori da”

“Marko propioaren aldarrikapena indartuko dugu, ze Ipar Euskal Herrian hitzarmenak eta lan baldintza guztiak Paristik ezartzen dira”

horretatik, aukera berri batzuk irekitzen ari zaizkigu. Guk ez dugu aurreko normaltasuna berreraiki nahi. Normaltasuna ezin da izan indarrean dagoen sistema hau berreraikitzea, baizik eta bizitza erdigunean jarriko duen sistema berri bat eraikitzea.

Euskal Herriak duen bereizgarria da jendartea antolatua duela, gehiengo sindikal eta sozial bat dago kontrabotereko sindikatu abertzaleetan edota mugimendu sozial desberdinetan (mugimendu feminista, pentsionistak, gazteak...) antolatuta eta instituzioetan indartzen ari den ezker soberanismo indartsua dugu.

Galderan ongi esan duzun bezala, garesti ordaindu zuen UPNk. Aldaketa posible zela sinetsiz kalean eginiko borroka, instituzioetan ere aldaketak ekarri zituelako.

Ipar Euskal Herrian ere krisi honen eragina nabaria izateaz gain, Elkargoak lan-harremenen gaineko eskuduntzarik ez izateak erakutsi du Parisko eredu zentralistarekiko erabateko menpekotasuna. Bertan negoziatzeko eta erabakitzeo dinamika are zentzu handiagoa du?

Ipar Euskal Herrian zentralizazioa erabatekoa da eta azken urte hauetan Garapen Kontseiluaren baitan, sindikatutik negozio kolektiborako marko propio bat eraikitzeo proposamen ezberdinak garatzen ari gara. Euskal Elkargoaren sorrerak laguntzen du aldarrikapen horretan urratsak ematen. Egia da orain sortu den krisi berri honek egiten ari ginena berraztertzea behartuko gaituela, baina marko propioaren aldarrikapena indartuko dugu, ze Ipar Euskal Herrian hitzarmenak eta lan baldintza guztiak Paristik ezar-

tzen dira eta ez daukagu inolako markorik eraikita langileen lan-baldintzak negoziatzeko.

Negozioen bila, kanpora begirako produkzioa duen ekonomia bultzatu da politika publikoen laguntzaz eta baita kanpo hornitzaileak dituen ekonomia ere. Krisi honek dependentzia hori agerian utzi du. Halaber, ikusi da bizitzarentzako eta emergentzia honetarako beharrezkoak diren produktuak ez ditugula ekoizten, ez garela burujabeak. Behar horietara bideratutako sektoreak bultzatu behar dira politika publikoen bidez? Sektore publiko berri bat edo sektore publiko-kooperatibo berria?

Garapen ereduari buruzko gogoe-ta sakona egin behar da. Krisi honek agerian utzi duen beste kontuetako bat ekonomia globalizatuaren aldeko apustu horren mugak dira. Ekonomia lokala sustatu behar da eta herrialde batek dauzkan beharrianak asetzeko besteko burujabea izan behar du.

Globalizazioaren aldeko apustuak sistema kapitalistaren metaketa estrategiari erantzuten dio, gastuen merketzean oinarritzen den eredu ekonomikoa delako. Horren guztiaren ondorioa prekarizazioaren sakontzea da. Baina ez hori bakarrik; planeta suntsitzen duen eredu bat da. Sostengaezina da.

Horrek indarrean dagoen produkzio eta kontsumo eredu berraztertzea eraman behar gaitu. Ez dauka zentzurik gain produkzioan oinarritzen den sistemarekin jarraitzeak. Jasangarriagoa izango den garapen eredu berri bat planteatzen dugunean, ikusten dugu ekosozialismoaren eta feminismoaren iturrietatik edan behar duela. Gaur egungo eredutik eredu berri horretara trantsizioa egin behar da.





“Herrialde baten aberastasuna edo bilakaera ekonomikoa aztertzerakoan beste parametro batzuk erabiltzea beharrezkoa da”

Bestalde, herrialde baten aberastasuna edo bilakaera ekonomikoa aztertzerakoan beste parametro batzuk erabiltzea beharrezkoa da. Gaur egun BPGren bidez aztertzen da hori, baina herrialde bateko bizitzak sostengatzeko beharrezkoak diren lan erreproduktiboak ere kontuan hartu behar dira, eta naturarekin zer-nolako errespetuarekin egiten den lan hori ere izan behar da kontutan. Ondoren azertu behar da ekonomia lokalizatuago baten alde nola egin, zer produkzioaren alde egingo den, zeintzuk diren nazionalizatu beharreko sektore estrategikoak. Askoz kontrol publiko handiagoa behar da ekonomiaren gainean.

Sindikatuan halako gogoeta batean sartuta gaude, eta hori

Programa Sozioekonomikora eramateko asmoa dugu, datoren kurtsoan kaleratzeko.

BirPentsatzen prozesua egin zenuen duela urte batzuk. Egoera prekarionean dauden eta kapitalak legalki babes sindikalek kanpo kokatutako langile sektoreengana iristeko ekarri zuen erabaki horrek beste modu batzuetan borrokatzeko beharra ekarri du. Negoziaketa kolektiboari pisua kendu diote gobernuek, baina eskubide horri begira egon gabe, ekintza sindikala berritu duzue.

Sindikatuok eraginkorrak izan nahi baldin badugu eta langile guztia errentzat tresna izan nahi baldin badugu, ezinbestean gure eredu sindikala birpentsatu behar dugu.

Hausnarketa horren ondorioz kapitala/lana kontraesan klasikoari dimentsio berri bat eman genion kapitala/bizitza kontraesana definituz. Horrek eredu sindikal osoa moldatzea ekarri du. Enplegua daukaten langileei soilik zuzendutako ekintza sindikala izatetik, lan guztiak kontutan hartuko dituen eredu batera jauzia egitea eta lan baldintzekin batera langileen bizi baldintzak borrokatzea igarotzea. Enplegueta bizi duina aldarrikatzea eta lan-harremanetan azken urteetan izan diren aldaketa guzti horiei eskaintza sindikal egoki bat egiteko aukera izatea.

Azken urteetan izugarri hedatu da prekarietatea, horren forma desberdinak legalizatu dira. Eta horren atzetik langilearen zatiketa egon da, langileen indibidualizazioarako joera. Prekarietatea plusbalia ateratzeko modu bat da, baina baita langileak dominatzeko eta desaktibatze modu bat ere. Eta bada sindikal gintzaren eragin gaitasuna mugatzeko modu bat ere. 2008ko krisiaren ondoren etorri diren bi lan erreformak prozesu oso baten “ginda” izan dira, negozio kolektiboa guztiz indargabetu dutelako.

Lan-harremanen uberizazio prozesu bat eman da. Horrek eremu sindikalek kanpo dauden langile kolektiboak ekartzen ditu, *rider*-ak bezalako kolektiboak. Bestetik badaude langile kolektibo batzuk erregimen berezietan daudenak, eta aurretik ere ohiko lan-harremanen ereduetatik kanpo zeudenak: etxeko langileak, ezkutuko ekonomian ari direnak, kasu gehienetan emakumeak; autonomo faltsuen errealitatea ere asko hedatu da azkenengo urteetan. Harreman kontraktual berriak gehitu behar zaizkio guzti horri.

Azkenik, telelanaren gorakadarekin prekarizazioarako ate berri bat ireki daiteke, eta gainera berriro ere emakumeak

izango dira kaltetuenak. Berriro ere etxera buelta bat. Eremu pribatura buelta bat. Indibidualizazioan sakontzea dakar, bakoitza bere eremuan lanean, kontakturik gabe. Horretaz ere gogoeta sakona egin behar da, eta sindikalgintzak horretan ere proposamenak egiteko gaitasuna izan behar du.

Krisi honen aurretik ere, Euskal Herrian pobreziaren datuak ez ziren batere lasaigarriak. Iazko udan Eusko Jaurlaritzak bere txosten propio bat ezkutatzeko ere saiatu zen. Aldi berean, pobrezia aintzat hartuta mundu mailan egiten diren txostenek gero eta ageriago uzten dute politika neoliberalak eragiten ari diren gizarte dualizazioa. Euskal oasia langileen ikuspuntutik ez da existitzen. Krisitik nolabaiteko errekuperazio bat hasi denean ere, hazkunde ekonomiko hori ez da langileon mesedetako izan. Hazkunde ekonomiko hori prekarizazioan oinarritzen delako. Horrek geroz eta desberdintasun sozial handiagoak izatea dakar, eta aberastasunaren metaketa handiagoa gutxi batzuen eskuetan. Aberastasunaren eta boterearen kontzentrazio handiagoa. Zentzu horretan Euskal Herria ez da salbuespena. Langabeziaren murrizketa bat egon denean,

SAKONEAN GARBINE ARANBURU IRAZUSTA

lanaldi partzialaren hazkundearen ondorio izan da. Lanaldi partzial inposatuak, gehienetan emakumei eragiten dietenak. Gaur egun, kontratuen %90etik gora behin behinekoak dira eta kontratuen iraupena oso murritza da. Kasu batzuetan asteetako iraupena dute. Egoera bereziki zaurgarrian aurkitzen dira etxeko langileak eta ekonomia ezkutuan lanean ari direnak, nagusiki, emakume arrazializatu eta migratuak direnak.

Bestetik, hemen bada Estatu espainiarreko datuekin alderatzeko joera. Aldiz, Europako batez bestekoarekin alderatuz gero, parametro guztietan azpitik gabiltza. Presio fiskala, langabezia-tasa edo behin-behineko-tasun tasa. Soldaten bilakaera aztertuta, sortu den aberastasunetik gero eta zati txikiagoa joan da soldatetara, eta Europarekin alderatuz tendentzia hori askoz nabarmenagoa izan da. Baita osasungintzara edota hezkuntzara bideraturiko inbertsioan

ere. Beraz, oso interesatua da Estatuarekin halako datuak parekatzea.

Koronabirusa dela-eta, jarrera kontrajarriak ageri dira ezkerreko sektore ezberdinetan. Batzuek egoera oso apokaliptikoetara jotzen dute. Horrek ordea beldurrarekin desmobilizazioa edo eskuin muturraren indartzea ekar ditzake. Beste batzuen ustez ordea, krisiak agerian utzi ditu globalizazioaren eta neoliberalismoaren pitzadurak eta beraz hemen-dik aurrera sistema publikoen berrindartzea etorriko da ezinbestean. LABek maiatzaren batean sakoneko eraldaketaren beharra azpimarratu zuen. Zer gertatuko da?

Gu erdian kokatzen gara [barreak]. Arriskuz betetako garaia da, langileontzat garai gogorrak datoz. Beldurrak eta ziurgabetasunak desmobilizazioa eragin dezake, alternatibarik ezaren ideia instalatzen lagundu lezake etsipenak, eta faxismoaren eta eskuinaren gorakada bat ekar dezake.

Era berean, aukeraz betetako garai baten aurrean ere bagaude. Baina aukera horiek beti ere borrokarako gaitasunaren arabera garatu ahal izango ditugu. Ezarri nahiko zaigun gidoi ekonomiko eta sozial hori lehiaztera sartzea

“Enplegua daukaten langileei soilik zuzendutako ekintza sindikala izatetik, lan guztiak kontutan hartuko dituen eredu batera jauzia egin dugu”

tokatzen zaigu. Sistemaren kontrako borroka horri ekin behar diogu lantokietako borroka sindikala ugarituz. Lantokietan enpleguaren defentsak eta lan-baldintzen defentsak zentralitatea hartuko dute. Horrekin batera, prekarietatearen kontrako leerroarekin jarraitu beharko dugu. Baina baita mobilizazio soziala indartuz, kalea indartuz.

Euskal Herrian erakutsi dugu herri bizi bat garela, aktibazio sozial handikoa. Greba orokorre-risteko egin dugun bideak, lortu diren konfluentziek eta horrek erakutsi duen indarrak erakusten digu Euskal Herriaren potentzialtasuna.

Bestetik, kapitalaren eta sistemaren kontrako borroka hori instituzionala ere izan behar da. Gure helburua beti izan behar da politika publikoak aldatzea eta horretan eragitea. Ikuspegi eraldatzaile batetik bokazio hori izan behar dugu.

Langileak ahalduntzeko, estrategia, pedagogia asko eta borroka ideologiko asko landu beharko ditugu. Badagoelako beldurra eta, azken batean, hau osasun krisi bat bakarrik dela ulertzen bada, “ez delako inoren ardura.” Beraz, hori etorri daitezkeen murrizketak errazago asimilatzeke eta aurreko normaltasuna ontzat emateko arrisku bat da.

2008ko krisiaren ondoren erre-zeta austerizidak ezarri dira eta ikusi dira politika horien mugak. Badakigu horrek zer egoera sozial eta laborala utzi duen.

Eraldaketaren norabidean aurrera egiteko, artikulatzeko gai garen indar harremanak determinanteak izango dira. Urtarrilaren 30eko greba orokorrak mugimendu ezberdinen artikulazioa bultzatu zuen, eta balorazioetan herriz herri arrastoa utzi zuela esaten zen. Zer nolako aliantza-politika behar da irekitzen ari den fase berri honetan?

Greba orokorrak argi utzi zuen herri honetan zein dauden kapitalaren interesen blokean, eta zeintzuk gauden aldaketa politiko eta sozialaren eta burujabetzaren aldeko blokean. Bloke horretan, eremu politikoan EH Bildu izan zen greba orokorra babestu zuen bakarra. Eta bestetik gehiengo sozial eta sindikal zabal bat izan ginen grebara deitu genuenak. Guretzat aliantza-esparrua horrek izaten jarraitzen du. Lehentasunezkoa da ezker soberanismoaren baitan gauden eragile ezberdinen arteko aliantzak sustatzea.

Greba erantzun garrantzitsua izan zuen, baina hori baino askoz gehiago izan zen. Aurretik aktibazio sozial indartsu batetik gentozen: pentsiodunek sekulako mobilizazioak egin dituzte, mugimendu feminista bi greba egitetik zetorren eta ez dira alferrik pasa. Inoiz baino greba batzorde gehiago sortu ziren presaketarako eta batzorde horietan oso aniztasun zabala egon zen. Horrek guztiak eragile ezberdinen arteko konfluentzia bat utzi du. Ondoren pandemia iritsi da, eta hori guztia geratu da: herri batzuetan desaktibatu egin dira, beste toki batzuetan beste forma bat hartu du, zaintza sareak sortu dira... Orain horri guztiari zer nolako jarraipena eman ikusi behar dugu.

Patronalari interpelazio bat egin genion akordiorako proposamen zehatz batekin eta instituzioei ere, behar gehien zuten langileentzat proposamen zehatzak planteatu genizkien, politika publikoetan ere aldaketa batzuk planteatzarekin batera. Orain erronka berriak ditugu: enpleguari eustea eta sektore publikoa indartzea; batez ere, osasungintza eta zaintzari lotutakoak. Oinarritzako lanetan ari diren langileak txalotu izan ditugu, baina txaloetatik harago joan behar da; bueltatu egin behar zaie egin duten esfortzu

SAKONEAN
GARBINE
ARANBURU
IRAZUSTA

“Telelanaren gorakadarekin prekarizaziorako ate berri bat ireki daiteke, eta gainera berriro ere emakumeak izango dira kaltetuenak”

“Europako batez bestekoarekin alderatuz gero, parametro guztietan azpitik gabiltza. Presio fiskala, langabezia-tasa edo behin-behinekotasun tasa”

hori. Nola? Zerbitzu publikoak indartuz, publikazioak bultzatuz eta beraien lan-baldintzak duinduz.

Krisi honek boterea izatearen, estatu gisa boterea egituratuta izatearen, garrantzia erakutsi digu. Ezkerreko independentismoak estatugintzaren alde borrokatu du beti, eta estatu tresnak eraikitzeke apustua egin du. Krisi honek zein gabezia erakutsi dizkigu lan harramanen eta babes sozialaren esparruetan estatu/botere egiturei dagokienean, kontutan izanda bazegoela azken erreformen ondorioz lan harremanen estatalizazio prozesu bat? Lan-harremanei dagokienean aurretik genuen egoera baten jarraipena izan da. Gernikako Estatutua eta Nafarroako Amejoramentua onartu zirenetik hutsune estruktural bat izan dute: enplegu eta babes sozial gaitan ez dugu eskuduntza osorik izan, beraz erabaki guztiak Madrildik etorri izan zaizkigu. Horregatik aldarrikatu izan dugu beti ahalmen legegile osoa eta eskuduntza guztiak jasoko dituen estatus politiko berrien beharra.

Oso interesgarria izan da EH Bilduk, Podemos eta PSOEekin 2012ko lan erreforma bertan behera uzteko lortutako akordioa. Norabide egokian doan urrats garrantzitsua da. Erreformen bidea deseraikitzen jarraitu behar da, zeren eta zentralizazioaren aldeko bidea 2010eko erreformak ireki baitzuen. Baina, hala ere, marko propioaren eraikuntzari begira jarri behar dugu, Madrildik etor daitekeenaren zain egon beharrik gabe. Ikusi dugu zer-nolako presioak dauden botere ekonomikoen aldetik eta PSOEak berak akordioa sinatu eta ordu gutxitara zer-nolako zalantzak agertu ziren. Horregatik jarri behar dugu indarra marko propio baten eraikuntzan.



“Aukeraz betetako garai baten aurrean ere bagaude. Baina aukera horiek beti ere borrokarako gaitasunaren arabera garatu ahal izango ditugu”

“Oinarritzko lanetan ari diren langileak txalotu izan ditugu, baina txaloetatik harago joan behar da; bueltatu egin behar zaie egin duten esfortzu hori”

Zentzu horretan ireki beharreko eztabaida da zein den Euskal Herriko langileek behar duten langile-estatutua eta zein den behar dugun gizarte-segurantz legea. Kontinenteaz hitz egiteaz gain, edukiaz ere hitz egiteko garaia da. Hori izan behar da sindikalgintzaren ekarpena langilleak prozesu subiranistara lotzeko.

EH Bilduk egin duen Estatus Berriako proposamenak jasotzen ditu aipatutako aldarri horiek. Oinarri egokia izan daiteke?

Adostasunean bildutako oinarriak abiapuntu egokia dira. Balia politiko handiko akordio gisa baloratu genuen bere garaian Oinarri eta Printzipioen Akordioa. Guk ekarpenak egin genituen gure ustez akordio horrek nolako minimoak jaso beharko lituzkeen, lan harremanetarako eta babes sozialerako, eta baita, esparru sozioekonomikoa babes-teko ere. Denborak eta pandemia honek erakutsi dute EAJk autogobernuaz duen kontzeptua zein den. Eroso dago kontzertu ekonomikoak eskaintzen dizkion mugekin, Confebaskekin duen talde horretan patronalaren mesederako politikak egiteko aukera ematen diolako, eta uko egin dio burujabetzaren eta erabakitzeko eskubidearen aldeko eztabaidari. Ez dauka Madrilen aurrean borroka hori egiteko inolako borondaterik.

Horrek beste egoera bat sortzen digu. Eraldaketa sozialaren

eta burujabetzaren alde dauden eragileen arteko aliantzak sustatu behar ditugu. Guri dagokigu kalean eta lantokietan borroka sustatzea baina ez hori bakarrik. Interpelazio politiko eta instituzionala egin behar dugu langileen interesak biltzen dituzten proposamen zehatzak eginez. Agenda konpartitu bat izan beharko genuke eremu instituzionalaren eta eremu sindikal eta sozialaren artean. Masa-mobilizazioa eta borroka instituzionala modu egokian uztartzeko gai izan beharko genuke.

Sindikalismoak traktore-lan garrantzitsua egin dezake Euskal Herrian beste mugimendu sozial batzuekin batera, eraldaketa soziala eta burujabetzaren beharra gurdi berean kargatuz. ELAren harremana gora beheratsua izan da beti. Aliantza sindikalerako zer aukera ikusten dituzu?

Sindikalgintza abertzalea ez da jokatzeko ari jokatu beharko lukeen traktore-funtzioa. Bestelako anbizio batekin jokatu beharko luke. Eskaintza integralago bat egin beharko luke aldaketa sozialaren eta burujabetzaren beharra lotuz. 2017an bi sindikatuok burujabetza prozesua sustatzeko agiri bat sinatu genuen, konpromiso batzuk gureganatu genituen. Konpromiso horien artean zegoen, adibidez, instituzioetan marko juridiko-politiko baterako eztabaida irekitzen

bazen, posizio komun batekin jokatzeko, negoziazio kolektiboaren estatizazioaren aurrean marko politiko propio baten aldeko borroka bateratuak bultzatzea eta prekarizazioari aurre egiteko beste hainbat kontu. Konpromiso horien artean zegoen, baita ere, ezker eremuan aliantzak bilatzen saiatzea. Dena bere horretan gelditu zen, ELA ez zuelako hori praktikara eramateko inolako borondaterik erakutsi.

Greba orokorraren testuinguruan berriz ere komunikazioa berreskuratu da, eta gai izan gara patronala eta instituzioak interpelatzeko proposamen bateratuak egiteko.

Adierazpen subiranista ateratzean egiten genuen gogoeta berreskuratu beharko genuke. Aliantzak ikuspegi estrategikoa landu beharko genituzke eta ez tokian tokiko interesen arabera. Baina aurrera begira, motzean behintzat, ez gara oso baikorrak horrekiko.

Guk, hala ere, aliantzaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu, beharrezkoa baita irekitzen den fase ekonomiko politiko eta sozial honetan langileen beharrei erantzuteko. Bitartean gure lerro propioa indartuz jarraituko dugu.

Ildo beretik tiraka, eta aurrera begira, nondik has gaituzke eta uste du LABek hasi behar dugula lan harremanetarako eta babes sozialeko esparru pro-

pioaren (LHBSEE) eraikuntzan? 2017ko EAEko Akordio Interprofesionala izan daiteke abiapuntu bat, bide bat? Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian modu burujabeen jokatzeko egiturak sor daitezke?

Lan harremanei eta babes sozialari dagozkion erabaki nagusiak Estatuetan hartzen dira. Eskuduntzarik ezean, LHBSEE eraikiz eta edukiz betetzen joateako, bertako hitzarmenek paper garrantzitsu bat jokatu izan dute. Guzti hori, hankaz gora jarri da azken bi lan erreformekin. Ezin dugu ahaztu zentralizazioari bidea ireki ziona 2010eko Zapa-teroren erreforma izan zela eta 2012ko erreformak bide horretan sakondu zuela.

Egin beharreko eta sindikatutik elikatu nahi dugun eztabaida nagusia estatus juridiko politiko berriena da, autonomismotik burujabetzarako bide horretan urratsak ematen joateko. Bide horretan, esparru propioa eraikitzen joateko, akordio intersektorialen aukera egokia izan daiteke. Akordio hauek patronal eta sindikatuen artean gauzatzen badira ere, eremu politikoak jokatu dezake paper bat. Patronalak ez du interesik horrelako akordioak sustatzeko, marko estatala onuragarriago zaio, prekarizazioan sakontzeko aukera ematen diolako. EAE zein Nafarroako Gobernuek ere ez die bultzadarik eman akordio intersektorialak egiteko aukerari. Azken adibidea greba orokorren testuinguruan proposaturiko akordio intersektoriala dugu.

Ipar Euskal Herrian, ekaineko hauteskunde ondotik, lurralde elkargoari bultzada berri bat emateko aukera izan daiteke eta testuiguru horretan, LAB esparru sozioekonomiko propio bat sortzeko egiten ari den ekarpena indartua atera daiteke.

Langileen artean pedagogia soberanista egin behar dugu. Langiloen lan eta bizi baldintzak

hobetzeko proposamenak ditugu eta proposamen horiek bertan erabakitzearen garrantzia barneratu eta borrokatzeko.

Aliantza sindikala kontrabotere izaera indartzen ari da, baina edukiko du edo eduki dezake herri-ikuspegi eta -interlokuzio bat sindikalismoak beti izan duen (eta gatazka laboraletan mantentzen duen) gaitasun kontraktuala maila politiko eta instituzionalera eramateko? Elkarrizketa sozialaren eredu paktistik harago, Euskal Herriko eta herri klase eta sektoreen gehiengoaren interesak maila horretara eraman dezake aliantza sindikalak?

Berreraikuntza ekonomiko eta sozial baten beharraz hitz egiten digute, kolaborazioaren beharraz hitz egiten digute. Bada, gu ez gaude berreraikuntzetarako. Guk ez dugu parte hartuko egungo sistemari eustea helburu duten marko ezberdinetan. Norabide berri bat finkatu behar da, eredu berri baterako trantsizio bat diseinatu behar da, eta nora-bide horretan hainbat akordio eraiki beharko ditugu, batzuk partzialak. Baina argi izan behar dugu zein den helburua. Horren arabera markatuko dugu gure posizioa eztabaida marko ezberdinetan.

Azken egun hauetan asko hitz egin izan da Aldi Baterako Enplegu Erregulazioei (ERTE) buruz eta egoera horretan dauden langileei soldatak osagarritzeko akordio bilatzen ari dira EAEko elkarrizketa sozialeko mahaian CCOO eta UGT. ELAk ere antzerako proposamena egin du. Gure ikuspegik, enpleguaren alorrean ditugun erronkei aurre egiteko motz geratzen da. Enplegu suntsiketari aurre egiteko plan integral bat behar da. EAE zein Nafarroako Gobernu eta patronalei, proposamen bat helarazi diegu enplegua babesteko neurriak eskatuz.

“Ireki beharreko eztabaida da zein den Euskal Herriko langileek behar duten langile-estatutua eta zein den behar dugun gizarte-segurantza legea”

“Eraldaketa sozialaren eta burujabetzaren alde dauden eragileen arteko aliantzak sustatu behar ditugu”

“Aliantzak ikuspegi estrategikoa landu beharko genituzke eta ez tokian tokiko interesen arabera”

SAKONEAN
GARBINE
ARANBURU
IRAZUSTA



Greba orokorraren bueltan, ELAekin batera, patronalari lau puntuko akordio interprofesional bat planteatu genion prekarietateari muga jartzeko, indarrean jarraitzen du proposamen horrek eta orain enplegua defendatzeko plan bat behar da. Dualizazioaren ondorioz, oso erraz suntsitu den behin-behineko enplegu guztiaren inguruko gogoeta bat behar da, langile-riaren zati oso zabal bat erabili eta bota daitekeen kolektibo bat bilakatu delako (gazteak eta emakumeak bereziki). Beharrezkoa da harreman ereduaren aldaketa bat eta horiei begirako plan bat. Aldi baterako erregulazioan (ERTE) dauden langileen soldatak osagarritu behar dira, baina, batez ere, hitz egin behar da etorkizuneko enpleguaz. ADEGIk esan du 12.000 lanpostu suntsitzea aurreikusten duela, Jaurilaritzak 68.000, baina ez bata ez besteak ez dute enplegu suntsiketa horri aurre egiteko planik azaldu. Oinarritzko lanetan ibili diren langile horien baldintzak duintzeko plan bat ere behar da.

Interpelazio instituzionalari dagokionez, behar sozialei erantzuteko neurriez gain, ezinbestekoa iruditzen zaigu zerbitzu publikoak indartzeko plan bat. Publikazio plan bat behar da. Inbertsio handiagoa behar da zerbitzu publikoetan. Ratioen legeak berrikusi behar dira, langile gehiago izateko. Langile publikoen egonkortasuna bermatu behar da. Ez da onargarria langile publikoek murrizketa batzuk ametitu behar izatea, eta Eusko Jaurilaritza hasi da jada norabide horretan mezuak ematen. Eta, azkenik, lehentasunezkoa da zaintza-lanen sistema publiko bat eraikitzea.

Langileak borrokara erakartzeko proposamenak izan behar dira, baina aldarrikapen horiek nonbait depositatuko dituzula eta nonbait borrokatuko dituzula ere bermatu behar da.

Zein izan behar dira lehentasunezko neurri politiko/ekonomikoak motzean krisi honi aurre egiteko? Langileek krisi hau ordain ez dezaten, zer-nolako neurriak jarri beharko lirateke abian?

Lehen esan bezala, zerbitzu publikoak indartu behar dira eta garapen ereduaren inguruan eztabaida oso bat egin behar da.

Enpleguaren defentsari lotuta, lehen esandakoaz gain, lanaldi-murrizketaren eztabaida ere ireki behar da. Lan guztien aitortza eta berrantolaketa behar da, lan guztien banaketa bat. Digitalizazioaren eta robotizazioaren bidetik enplegu suntsiketa aurreikusi dezakegu. Gaur egun aldarrikatzen ditugun 35 orduko lanaldietatik, lanaldi-murrizketa ausartagoetara jo beharko dugu.

Azkenik, aberastasunaren banaketari buruzko eztabaida sozial eta politikoa egin behar da. Egun indarrean dagoen zerga-politika berrantolatu behar da. Badago tartea diru gehiago biltzeko, presio fiskal handiago izateko. Baina diru bilketa hori askoz modu progresiboagoan egin behar da. Guk lau neurri zehatz planteatzen ditugu. Proposamen hori diputazioei helarazi diegu, baina ez dakigu horretaz eztabaidatzetik izango dugun, herri honetan, orain arte, zerga politikaren parameetroak patronalak markatu izan dituelako.

Lehen neurria, kapital handien gaineko zerga berezi bat ezartzea, gehien dutenek gehiago ordaintzeko. Bigarrenik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren bidez jasotzen den diruaren zati handiena langileen errentetatik dator; oso bidegabea da eta berregokitze bat planteatzen dugu. Hirugarrena, Sozietateen Zerga, murrizten joan izan da zerga hori; hobari eta kenkari guztiak kendu behar dira, bestela, enpresek ez dute beharko luketen proportzioan ordaintzen.

Azkenik, zerga iruzurrari eta zerga ihesari aurre egiteko neurriak behar dira.

Amaitzeko, koronabirusaren aurretik Zaldibarko hondamendia gertatu zen. Zer balorazio egiten duzu?

Zaldibarkoa bi ereduren arteko talkaren beste isla bat izan da. Zaborren kudeaketan izandako hutsune guztiak agerian geratu dira. Lehenik eta behin, eztaba-dagarria da erabat pribatizatu daitekeen zaborren bilketa. Eta, bestetik, pribatua izanda ere, askoz kontrol publiko handiagoa eskatzen du, kontrol sistemek porrot egin dutela ikusten baita.

Era berean, argi ikusi zen lehentasuna langileak baino, autopista irekitzea izan zela. Ondorioz, hasiera batean, erreskate langileak lan osasun-arrisku batera paratu ziren.

Baina era berean, Zaldibarkoak, Osakidetzako enplegu publikoaren eskaintzen auziak, De Miguel auziak, EAJren kudeatzaile onaren mitoa pitzatu dute. Desmuntatu beharra dagoen ideia bat dago: pasatzen dena pasatzen dela, EAJri ezerk ez diola fakturarik pasatzen. Gabeziak gero eta nabarmenagoak dira, eta hutsune horietan eraginez, EAJren hegemonia leihatzeak aukerak gero eta handiagoak dira.

“Esparru propioa eraikitzen joateko, akordio intersektorialen aukera egokia izan daiteke”

“Guk ez dugu parte hartuko egungo sistemari eustea helburu duten marko ezberdinetan”

“ADEGIk esan du 12.000 lanpostu suntsitzea aurreikusten duela, Jaurilaritzak 68.000, baina ez bata ez besteak ez dute enplegu suntsiketa horri aurre egiteko planik azaldu”

“Egun indarrean dagoen zerga-politika berrantolatu behar da. Badago tartea diru gehiago biltzeko, presio fiskal handiago izateko”

SAKONEAN
GARBIN
ARANBURU
IRAZUSTA

EUSKAL ERREPUBLIKAREN BEHARRA

inoiz baino agerikoago

**Urkullu eta Chiviteren
aginte autonomikoen
ahuldade guzti guztiak
nabarmen agertu dira.**



Larraitx Ugarte.
*Abokatua eta
EH Bilduko kidea.*

Argazkiak: FOKU

Estatuak konplexurik gabe gure urteetako eskuduntzak xurgatu dituenengan eroso ikusi dira gure lurraldeetako agintariak.

Azken hilabete hauetan COVID 19aren pandemiak larro askotariko pentsatze-ko bideak zabaldu dizkigu. Krisi honetara ekarri gaituen sistemen miseriak, hemendik ateratzean beharko genukeen gure baliabide naturalen ustiaketa nola garatu, kontsumo, bizimolde eta mugikortasun ereduaren inguruko gogoetak, lanaren eta bizitzaren arteko talka, sistema produktiboaren eta osasunaren artekoa, sistema publiko indartsuen beharraz, gure herritarren zaintzaren gaineko eztabaidaz... Krisi honek ezkerreko independentismoarentzat hain ebidentea zen hori ere erakutsi digu: estatu baten beharra. Espainiar nazionalismoak, diskurtso naif mundutiarrek, europeistek eta are Urkulluren interdependenziaren aldarrikapenak edo Ortuzarren ia-estatu bat izatearen salmentak ezerezean geratu dira azken hilabete hauetan. Europar proiektuaren handitasunaren defendatzaileak larrugorritan utzi ditu egoerak.

Espainia eta nazio-estatu deritzonaren sendotzeaz

UME eta Guardia zibilarren presentzia gure kaleetan ikusteak sinbolizatu du agian modurik garbienean hego Euskal Herria

Espainiaren parte dela. Hasierako asteroko Madrilgo prentsaurreko militar-polizial horiek bezala, Espainiaren autoritatearen espresiorik gorenena erakutsi digute. “Todos unidos”, espainiar guztiok batuta esan nahi duela itzultzea erraza suertatu zaigu. Eta Urkullu eta Chiviteren aginte autonomikoen ahuldade guzti guztiak nabarmen agertu dira. Pandemia honetan estatua izan da autoritate gune bat eta bakarra. Konstituzio Espainiarraren 116. artikulua aplikazioak urteetako “Europako autogobernu maila altuenaren mitoa” hankaz gora utzi du, Katalunian 155. artikulua orabaiti oraindik zalantzak utzi bazizkion. Eta nago, ez dela trantsizio fase batean geratuko den eredu izango. Behin autoritate eta botearearen ontasunak frogatuta eta salbuespen egoerak eragindako herritarren otzantasuna ikusirik, aurrerantzean Espainiar Estatuak formula honen edo antzekoen erabilera tentaldiak izango dituela iragartzea erraza da. Estatu nazioa eredu zaharkitua zela ziortenentzat zaplazteko gordina. Estatu nazioa ez doa iraganaren besoetara, gaurkotasun eta etorkizun handiko antolakuntza eta gobernantza modua da. Eta euskaldunok ez ginateke

formula horrekin baino gutxiagorekin konformatu behar.

78ko erregimenaren krisitik pandemiaren krisira

Estatuko sektore independentistok izenburu horretatik abiatutako analisia egiten geniharduen pandemia gainera erori zitzai-gunean. Kataluniako prozesua, korrupzio kasuak nonnahi, bipartidismoaren krisia, demokrazia errearen gabezia... 78ko erregimena agortzen ari zenaren analisia Euskal Herrian ere geroz eta partekatuagoa zela esatera ausartuko naiz eta hortik eratorri zen EAE eta Nafarroak estatuarekin beste harreman mota bat eraiki beharrenez ideia, berdinaren artekoa eta bakongado eta nafarron erabakitze eskubidean oinarrituta. EAEn azken hiru urte hauetan legebiltzarreko autogobernu ponentziak landutakoa tesi horren zabalkundearen adibide garbia delarik.

Txinatik etorritako birus bat nahikoa izan da guzti hori hankaz gora utzi eta mundu guztia- ren berkitatze politiko bat behar izateko. Gutako inork inoiz eza- gutu ez zuen tamainako krisi sa- nitario honek gure askatasunak autoerregulatatu eta goizetik gaue- ra inoizko modu basatienean

inposatu zaigun estatu arrotz baten menpe jartzea eragin du. Salbuespenean salbuespen neurriak, ados, lehen osasuna. Baina salbuespen hori aurrekari arriskutsu bat izan daitekeela ezin ukatu eta honetan ere, beste ezer egin ezean lehengo normalitate autonomikora bueltatuko garela itsuan pentsatzea inuzentekeria da.

Estatu bat izatearen garrantzia eta autogobernazio horrek ematen dituen ahalmen mugagabeen inguruko diskurtsoa, arrazoi ulergarriengatik bada ere, faltan bota dira azken hila-beteotan. Estatuak konplexurik gabe gure urteetako eskuduntzak xurgatu dituen eroso ikusi dira gure lurraldeetako agintariak horrelako larrialdi baten erantzukizuna gauzak gaizki egitekotan Madrili leporatzeko kalkulu politikoak eginda.

Kudeaketa sanitarioaren ikuspegi batetik, eskuduntzen xurgatzea hankasartzea izan da: osasun alorrean jarduteko gaitasunik gabe maskarillak zentralizatzen ikusi dugu Madril; deseskaladaren lehen faseak arte neurri berdin edo homogeneoak aplikatzen espainiar territorio guztian, egoera guztiz ezberdinei erremedio berdinak eman nahian; baliabide publikoen banaketa beharrian lokaletara egokitzeke... Kudeaketa zentralizatu baten gabeziak nabarmen geratu dira eta mandu bakarrarena eraginkortasunaren izenean errore bat. Lurraldearen tamaina handia izateak dituen desabantailez ere jabetu ahal izan gara.

Datorren krisi ekonomikoa kudeatzeko orduan ere, formula espainiar zentralistaren desegokitasuna agerian utziko digu eta honi aurre egiteko ditugun tresna politiko-juridikoen ahuleziak inoizko nabarmenen.

Kudeaketa zentralizatu baten gabeziak nabarmen geratu dira eta mandu bakarrarena eraginkortasunaren izenean errore bat da.

Familiek etxera ogia nola ekarri ahalko duten eta estatuak edo gobernuak nola babestuko dituen jakin nahi du gutako bakoitzak.

Datorren guztiari hemendik pentsatu, sortu, legeztatu eta exekutatuak planteamendua komeni zaio. Eraginkortasun eta zentzu komun kontu bat da.

Autogobernu autonomikoaren ahuldadea: kontzertuaren eta kupoaren mitoaren erorketa
Pandemiak eragin duen krisi ekonomikoren hasieran baino ez gauden honetan, BPGaren eboluzioaz haratago herritarren kezketan lehentasun bilakatzen ari da komertzioaren itxiera, taberna eta ostalaritza negozioena, turismo sektorearena baina baita lehen sektore edota

industrialena ere. Familiek etxera ogia nola ekarri ahalko duten eta estatuak edo gobernuak nola babestuko dituen jakin nahi du gutako bakoitzak. Ez da gutxia-gorako.

Espainiak “berreraikitze” proiektua jarri du abian horretarako, Espainiar eskalan krisialditik ateratzeko plan osatu bat egiteko asmoz. Euskal eskalan ere ari dira alderdi politiko ezberdinak eta erakunde publikoak euren planak aurkezten. Batzuk berriro lehengo normalitatera azkar itzultzea bilatu nahian, non betikoen interesak gehiengoaren interesen gainetik lehenetsiko diren eta beste batzuk ezkerretik eta aldaketak gosetik burututakoak, krisi honen zergatiak ondo kokatu eta planteamendu eraldaitzaile interesgarriak eginez. Alderdien planez gain, mugimendu sozial ezberdinek ere euren proposamenak mahai gaineratu dituzte krisi honetatik balioen eskala aldatu eta hainbat arlo lehen lerroan jartzeko beharra azpimarratu dutenak (mugimendu feministak zaintzaren inguruan egindakoak, kasu).

Halere, euskal eskalan egindako plan guzti-guztiek dituzten mugak agerian uzteko momentua da. Hezkuntzaren etorkizuna kasu. Kurrikulumean eta ebaluaketa sistemetan aldaketak egitea baldintzatuta daukagun hezkuntza sistema bat badugu, digitalizazioan aurrera egingo dugu, ikasleen kompetentziak handituko ditugu, irakasleen osasun baldintzak hobetu ahalko ditugu baina herri honen etorkizuneko profesionalak eta jakintzadun pertsonak ez dira hemen erabakitako parametroetan formatuko. Zaintzari dagokionean espainiar dependentzia legearen parametroetan mugituko gara eta jende gehiago edo gutxiago izango dugu kontratatuta, siste-



Iñigo Urkullu Lehendakaria martxoaren 11n terrorismoaren biktimei Gasteizen egindako omenaldian. Pandemia EAera iritsi zenean, herritarrek, dendariek eta baita Espainiako Gobernuak ere etengabe aurea hartu zioten erabakietan. Erreakziorako gaitasun falta eta iniziatiba gaitasun falta nabariak izan dira. Apirilaren Seko hauteskundeak atzeratzea ere izugarri kosta zitzaion, pandemiari neurria hartu ezinda.



2020-05-26, Gasteiz. Osasun eta gizarte arloan inbertitzeko eskatzeko agerraldia hainbat eragilek, "Orain ardura" ekimena, elkarretaratza eta agerraldia Txagorritxu aurrean.



ma publikoa indartsuagoa izan daiteke baina oinarria Madril lek markatuko du. Zer esanik ez esparru ekonomikoan eta batipat lan arloan eta oinarritzko eskubide subjektiboen eremuan, errenta bital minimoa, ERTEak, pentsioak edota etor daitezkeen lan erreforma berriak.

Datorren guztiari hemendik pentsatu, sortu, legeztatu eta exekutatuak planteamendua komeni zaio. Eraginkortasun eta zentzu komun kontu bat da. Gure baliabideak guk erabaki behar dugu nola kudeatu, hemen dauden industriaren berraktibaziorako beharrak esaltzeko, trantsizio energetikora-ko pausuak sendotzeko, osasun publikoa indartzeko edota gure milaka familien erreskaterako.

Honela, likidezia beharko dute gure erakunde publikoek etorriko diren behar guzti horiei aurre egiteko eta dirusarrerak handitzeko arautze ahalmena behar dugu (ez zerga kontzertatuena soilik, egun dugun bezala, baita BEZarena ere). Egun dugun modeloaren arabera gure dirusarrerak mugatuta daude. Iragarri dituzten Europar funtsak Madrilan eskuetatik pasako dira eta guri funts horietatik zenbat dagokigun han erabakiko da. Hemen erabaki beharko da ditugun aurrekontuak nola antolatu eta aurreikusita edota abiatuta dauden hainbat proiektu farrakoniko geratzea (AHT eta HTS bezalakoak). Estatuari ere esan beharko zaio ez dugula nahi herri honetan egin beharreko inbertsioak han erabaki eta guk modu batera edo bestera ordaintzea. Zergatik ez AHTren Araba eta Bizkaiako zatiak geratu eta EAEko erakundeei kupoaren ordaintetatik gutxiago kendu? Adibide hauek guztiek erakusten dute besteren artean jeltzaleei hainbeste gustatzen zaien Europako autogobernurik handienaren muga: datorrenari aurre

egiteko eta etorkizuna hemen diseinatzeko Madrilera bilkuretar joan beharko duen gobernantza ereduarena. Besterik da aukera hau, herri honen determinazioa erakusteko den. Zentzu horretan, Kupoaren ordaintzetaren negoziazioa, BEZarena, gizarte segurantzarena edota europar funtsena eta orohar gure lurraldean Estatuaren eskuhartzeari mugak jartzea Estatuarekin konfrontatzeko esparru interesgarri bilakatu daitezke horretarako borondate politikorik badago.

Independentismo emozionala eta arrazionala

Proiektu independentista urteotan nagusiki modu emozionalen garatu dugun mugimendua gara ezker independentista. Eta hori askok modu mespretxagarrian eta baztergarrian berau gutxiesteko erabiltzen badute ere (baita independentismoaren baitan) uste dut elementu emozionala berreskuratzeko momentua dela, estatuaren zentralismo entseguen atzean dagoenaren inguruko irakurketazorrotuz; ze izan gintezkeen Zeelanda Berria edo Danimarka eta Espainia izatea tokatu zaigu, hein handi batean egungo instituzioetako arduradunen lidergo gabeziagatik.

Baina honekin batera independentismoaren arrazionalizazioaren defendetzaileek ere badute datozen hilabeteetan espainiar Estatuaren menpekotasunak ekartzen dizkigun mugetan barrena nabigatzeko aukera: gure bizitzak eta herria antolatu eta aurrera bideratzeko behar ditugun tresnak ez dira nagusiki albertasunetik egingo; besteek dituzten mekanismo juridiko, ekonomiko eta politikoak berberak izatea lortzea da herri honentzako berme bakarra. Erori da, behin betiko, hiltzorian zegoen estatutuaren mitoa. Hil da jainkoa.

Argumentazio praktikokoaren bilduma on bat egin eta Espainian jarraitzearen lastrea pedagogizatatzeko aukera zabaltzen zaigu, muga horiek ikustarazteko konfrontazio politiko sendoa egingo duen mugimendu bilakatzen asmatzen badugu: dagoenarekin zer egin dezakegun soilik pentsatzeko hartu dugun joera arriskutsu hori beste mota bateko pentsamenduarekin konbinazio egokian baino ez dela eraginkor kontziente bagara. Epe motzak luzea kamustu ez dezan. Posible dena egin baina egin nahi dena posible bilakatzea sakrifikatu gabe. Balia dezagun egoera hau posible egin nahi dena nola egin pentsatzeko.

Gure bizitzak eta herria antolatu eta aurrera bideratzeko behar ditugun tresnak ez dira nagusiki albertasunetik egingo; besteek dituzten mekanismo juridiko, ekonomiko eta politikoak berberak izatea lortzea da herri honentzako berme bakarra.



Aberri Eguna konfinatuta ospatu behar izan dugu aurtan. Euskal Herria Batera ekimenak dei eginda, herri gisa koronabirusari aurre egiten lehen lerroan ibili diren langileak omendu ditugu eta dolua adierazi hildakoen senideei.

**Herriko Etxeak eta
Ipar Euskal Herriko
instituzioa:**

**biharko eszenatoki
posibleen inguruko
gogoeta bat**

Azken hilabeteetan Ipar Euskal Herrian iragan ziren herriko bozak laburki aipatuko ditut lehenik. Hauteskundeak emaitzen irakurketa apur bat bazterrera utziz, Estatu frantseseko administrazioak bizi dituen bilakaerei interesatuko naiz gehiago, horiek azkarki baldintzatuko baitute biharko udalgintza.



Argitxu Etxandi. *Irakaslea.*
ARGAZKIAK: FOKU

Herriko hauteskundeak joan den martxoan iragan zirenez, aipatu beharra da Frantses estatuaren barneko hauteskunde sistema, araudi elektorak gauza asko baldintzatzen baititu.

Herriko Etheen egoera

Egia da hainbat eskuduntza Hirigune Elkargoari tranferituak izan direla —garapen ekonomikoa, hirigintza, ura, zaboreen kudeaketa— baina horrek ez du kentzen Herriko Etxeek oinarritzko funtzio bat betetzen dutela. Lehenik eta behin, Herriko Etxeak dira demokraziaren berme, Hirigune Elkargoko ordezkariak ez direlako oraindik sufragio zuzenaren bidez hautatuak —hortxe dugu, hain justu, biharko erronketariko bat—. Horrez gain, Herriko Etxe batek oraindik hainbat erronka ditu bere gain, besteak beste arlo sozialean eta tokiko bizitzaren kudeaketari begira.

Herriko hauteskundearen parte bat joan den martxoan iragan zenez, aipatu beharra da Frantses estatuaren barneko hauteskunde sistema, araudi elektorak gauza asko baldintzatzen baititu. Lehenik, azpimarratzekoa da hautetsiak norbanakoen izenean aukeratuak direla, hots, alderdiek ez dute berezko tokirik herrietako hauteskundeetan. Noski, nahi duena familia politiko baten izenean joan daiteke baina finean, hautesleek pertsonak dituzte hautatzen. Horren ondorioz, zerrenda anitzak gartzten dira herri gehienetan, tendentzia politiko asko elkar batuz. Horrek eztabaida konplexuak

sortzen ditu jakina, eta kontsentzuak bilatzeko beharrezkoa den kultura politikoa eskatzen du; ideologiaz gain kudeaketarako gaitasuna, zilegitasuna irabazi ahal izateko.

Krisi sanitarioa dela eta, hauteskundearen bigarren itzulia atzeratu behar izan zuten, bi itzulien artean larrialdi egoera aldarrikatua izan zelako. Azken finean, pasa den ekainaren 28an egin zen bigarren itzulia, gehien-go bat lortu ez zuten herrietan. Baina krisi honen eragina ez da horretara mugatzen. Izan ere, pentsa daikete Estatuak lurralde erakundeei banatzen dizkien baliabideak murriztuak izan direla, austeritate egoera bat eraginez.

Begira ditzagun, halere, hauteskundearen emaitzak, orokorrean gutxienez. Azpimarragarria da abstentzio tasa herri handietan, dudarik gabe krisi sanitarioak izan duen eraginagatik. Oro har, barnealdeko herri txikietan, burujabetzaren aldeko zerrendek emaitza onak lortu dituztela erran daiteke, Ortzaizen, adibidez. Herri ertainei begiratuz gero, abertzaleek sustatutako zerrendek emaitza onak berretsi dituzte, Baigorri, Itsasu eta Uzta-ritzen gehiengoak lortuz. Era berean, deigarria da Donapaleuko zerrenda irekiak ere gehiengoak lortu izana. Herri handiagoetara

begiratuz, zerrenda abertzaleak nagusitu berri dira Urruña eta Ziburun¹. Baionan berriz, aurreko legegintzaldiko gehiengo politiko bera mantentzen da, Jean-René Etchegarayk gidaturik.

Emaitza horiek ikusirik, toki gehienetan hautetsi abertzaleen posizioa aldatzen dela erran daiteke. Horrek hainbat galdera sortzen ditu. Nolako hautetsiak nahi ditugu biharko udaletan? Ez baita gauza bera oposizioan «epailearen» papela jokatzeari edota herria bera kudeatzeari. Haratago, biharko Herriko Etheen konfigurazioak Euskal Herriko udalgintzaren eredu berria baldintzatuko du. Eta asko dira arlo horretan finkatzekoak diren norabideak: auzapeza eta kontseilarien arteko rolen banaketa, herri mailako parte hartze politikak, ekonomia sozial eraildatzailearen aldeko apustuak, etab.

1 https://www.kazeta.eus/eu/info_kz/20200628/ziburu-urruna-uztaritze-eta-itsasuko-auzapezak-abertzaleak-izanen-dira



Biharko Herriko Etxeen konfigurazioak Euskal Herriko udalgintzaren eredu berria baldintzatuko du.

Bilakaera administratiboak Hauteskundeen emaitzetatik harago, Frantses Estatuak bizi dituen bilakaera administrati- boei so egitea merezi du. Esta- tu mailan lurralde erreforma sakon bat abiatu zen 2015ean, ondotik Notre legearen bidez osoki gauzatu zena. Erreforma horren ondorioz, Herriko Etxeek hainbat eskuduntza elkargoen esku utzi zituzten, hara nola tu- rismoa. Interes turistiko berezia duten herriek ordea, gaitasun hori mantendu ahal izan dute (Angelu, Bidarte, Miarritze, Kan- bo eta Hendaia kasu). Hirigintza planoak ere elkargoaren esku uzten ari dira, eta ez da gutxi.

Aurten berriz, Parisko lege- biltzarra araubide berri horren lehen balantzea egiten hasi da. Diputatuek joan den abendoan

onetsitako ebazpen batean, lurralde erreformari kritika zorrotza egiten diote, eta hobe- kuntzarako hainbat gomendio ematen dituzte. Analisia honen eramaleen iritziz, erreforma ho- rrek sortu zituen ilusio guztiak galdu egin dira. Kritika nagu- sienetariko bat, erreformak he- rritarren eta erakundearen arten sortutako distantzia da, dudarik gabe. Era berean, Herriko Etxea eta Elkargoen artean nolabai- teko distantzia bat sortu da, eta ebazpenaren arabera, Herriko Etxeen eragin ahala murrizten joan da. Herriko Etxea eta Elkar- goaren arteko zubia segurtatu behar zuten Lurralde Poloak ez dira berehala martxan jarri, eta oraindik badute bidea egiteko. Halere, kritikaz gain, ebaz- pen horretan hobekuntzarako



gomendioak ere ematen dira: udala berriz balioan jartzea, departamentuak zuten funtzio batzuk berreskuratzea (batez ere enpresak laguntzeari begira), edo erabaki gunean perimetro batzuk berrikustea.

Ebazpen hori onartu bezain azkar, herritarren eta erakundeen arteko lotura indartzeko “*Engagement et proximité*” deitutako legea onartu da. Lege horren lehen xedea : Herriko Etxeak eta Elkargoen arteko harremanak kudeatzeko tresnak ezartzea. Horretarako, “gobernantza ituna” egitea berresten da, hots, harreman horiek kudeatzeko araubide juridikoa. Ondotik, itun hori oinarri gisa erabiliko da Lurralde Proiektua —hots, lurraldearen inguruko arloz arloko plan estrategikoa— egikaritzeko.

Hori dela eta, gaur egun, Euskal Hirigune Elkargoa oraindik egituratze bidean da, araubide berri hori kontutan hartu behar duelako alde batetik, eta hauteskundearen arabera berrosatuko

delako bestetik. Behin herrietako hauteskundeak itxi ondoren, Hirigune Elkargoko lehendakaria aukeratuko da, eta horren ondoren exekutibo berria.

Lurralde gobernantzari doakioenez, Hirigune Elkargoaren figura juridikoaren bilakaerari buruz gogoeta berriz irekiko da, dudarik gabe. Izan ere, gure lurraldeak bilakera bizkor eta nabarmenak bizi ditu: biztanleriaren emendatzea, aro numerikoaren zabalkundea, trantsizio energetikoa... Era berean, lurralde honek funtsezko berezitasunak ditu, hara nola mugaz haraindiko izaera berezia, Akitania mailan pisu berezia duen nekazaritza, edo euskararen normalizazio prozesuak suposatzen dituen erronkak. Horiek horrela, diferentziazio eskubidea oinarritzat hartuz, lurraldearen premia eta bilakaerei egokia izanen litzatekeen estatus bereziaren gogoeta pil pilean izanen da ondoko hilabeteetan, are gehiago Alsazian ematen ari diren urratsak ikusiz.



Estatu mailan lurralde erreforma sakon bat abiatu zen 2015ean, ondotik Notre legearen bidez osoki gauzatu zena. Erreforma horren ondorioz, Herriko Etxeek hainbat eskuduntza elkargoen esku utzi zituzten, hara nola turismoa.

Gaur egun, Euskal Hirigune Elkargoa oraindik egituratze bidean da, araubide berri hori kontuan hartu behar duelako alde batetik, eta hauteskundeen arabera berrosatuko delako bestetik.

Diferentziazio eskubidea oinarritzat hartuz, lurraldearen premia eta bilakaerei egokia izanen litzatekeen estatus bereziaren gogoeta pil pilean izanen da ondoko hilabeteetan, are gehiago Alsazian ematen ari diren urratsak ikusiz.

*Blockchain
making
transactions
safer and faster*



REWRITE TOMORROW



Argazkia: Pascal Bernardon, Unsplash.

Retos y riesgos de la Inteligencia Artificial

Las crisis capitalistas siempre aceleran procesos latentes y en evolución. La actual crisis pandémica, de impactantes consecuencias, no es un corte, es una aceleración histórica en cuya “sopa” se encuentran todas las partículas [contradicciones] anteriores solo que en mayor grado de inestabilidad y a mayor velocidad y grado de exposición. El “acelerador”, el Covid-19, no es el “culpable”. Es el detonante. Es la “tormenta perfecta”.

UMS. *Informático.*

Han acumulado enormes cantidades de datos que les van a permitir desarrollar de modo exponencial su control de la inteligencia algorítmica y su papel central en la economía del futuro.

Desde lo poco que se puede vislumbrar tras la opacidad dominante en las instituciones vascas, el visto bueno de Silicon es el que da carta blanca para obtener recursos, ayudas públicas y, claro está, dependencia.

Que los flujos continuos de información así como la infraestructura que los genera y trata, pertenezcan en su mayoría, y con dinero público de por medio, a las empresas privadas EE.UU. no parece preocupar.

A toda máquina hacia un mundo numérico y “googlelizado”

El capitalismo post-2008 no ha perdido el tiempo durante la cuarentena. Mientras manipulaba mediáticamente la indefensión y el miedo sociales, ha ido planeando la “era post-virus”, cuya característica más sobresaliente es la vertiginosa imposición de la disrupción digital y diferentes tecnologías exponenciales (IA, Big Data, IIoT, Blockchain). Imposición en salud, en banca y fondos de inversión, en educación, en industria, en comercio, en trabajo, en telecomunicación, en urbanismo, en “seguridad” y vigilancia; junto a un mundo “sin empleo” debido a la automatización, el aumento de la desigualdad y la “limpieza” de toda empresa “no productiva”... ¡La Cuarta Revolución Industrial en todo su esplendor! La edad de oro de las Big Tech y de algunas Small Tech.

En la noche solsticial de San Juan, al fuego purificador se le pedía quemar lo viejo y dar la bienvenida a lo nuevo. Era un concepto vital y mágico que, claro está, nada tiene que ver con esta frase de Mark Zuckerberg, el gurú de Facebook: “Muévete rápido y rompe cosas. A menos que estés rompiendo cosas, no te estás moviendo lo suficientemente rápido”. Brusquedad, velocidad, ruptura... hacia la nada. Cambiar el mundo y la humanidad de forma drástica por dinero, control, poder... Y, en la realidad post-virus, sumergirnos, en opinión de Naomi Klein, en un futuro basado en la Inteligencia Artificial (IA), sin contacto, deshumanizado, dirigido y manipulado por la asociación de los estados (y de CC.AA. como la nuestra), los fondos de inversión (digital) y las grandes tecnológicas de Silicon, es decir, básicamente, las FAAMG (Facebook,

Apple, Amazon, Microsoft y Google). Las grandes triunfadoras de este “apagón general” durante el que han acumulado enormes cantidades de datos (el petróleo del s. XXI) que les van a permitir desarrollar de modo exponencial su control de la inteligencia algorítmica y su papel central en la economía del futuro.

Sin olvidarnos, claro está, de China.

¿Clientelismo e imperialismo en la era digital?

Cuando hablamos de la IA y demás tecnologías digitales, no estamos hablando de algo que se va desarrollando “a su aire”. Como menciona Naomi Klein, el “punto caliente” sería la interconexión entre gobiernos y grandes empresas tecnológicas y subordinadas: teledirigidas inversiones de dinero público en investigación y desarrollo privados, arrinconamiento o trillado de otra multitud de proyectos de indudable interés, decisiones socio-económicas y políticas de gran alcance y que generan dependencia a corto-medio plazo... Desde lo poco que se puede vislumbrar tras la opacidad dominante en las instituciones vascas, el visto bueno de Silicon (por generalizar) es el que da carta blanca para obtener recursos, ayudas públicas, ... y, claro está, dependencia. En su gran mayoría, en beneficio de universidades, instituciones y empresas privadas en detrimento de lo estrictamente público, y en plena reconversión digital general propulsada por el estado de alerta!

El Estado español e Italia, entre otros, también parecen plegarse a las servidumbres exigidas por Google y Apple para ejecutar rastreos de contactos por Bluetooth. Ellos al parecer deciden qué apps sí, y cuáles no. Qué sale adelan-

En estos momentos de la llamada “guerra fría digital”, de feroz competencia tecnológica entre EE.UU. y China (sin olvidar a Rusia), en los que la IA se ha convertido en el centro del tablero de poder global.

te, y qué no.

Que los flujos continuos de información así como la infraestructura que los genera y trata, pertenezcan en su mayoría, y con dinero público de por medio, a las empresas privadas EEUU no parece preocupar. Curioso.

Sobre todo teniendo en cuenta que en China, la notoria imbricación de lo público-privado implica, en estos momentos de la llamada “guerra fría digital”, de feroz competencia tecnológica entre EEUU y China (sin olvidar a Rusia), en los que la IA se ha convertido en el centro del tablero de poder global, junto a la batalla por la narrativa de la pandemia: ¿estamos hablando del virus chino o del Covid-19?

China se está “militarizando”, para, junto al machine learning y al deep learning, generar AWS (sistema de armas autónomas). Con inversión público-privada, China ha alunizado en la cara oculta de la Luna. Facebook, ante las inversiones chinas en África, va a desplegar 37.000 km. de cable para mejorar el acceso a Internet en 27 países de ese continente. La NASA, junto a SpaceX, la joya de Elon Musk, el creador de los coches eléctricos, ha lanzado la nave *New Dragon* con la idea de colonizar Marte en 2022.

Estamos ante la fiebre minera espacial. Todo público-privado. Terreno de batalla algorítmico tremendamente desestabilizador.

¿Es la IA ideológica? Sobre roboética y control real

Según la especialista en Ed-tech Audrey Watters, la IA no se desarrolla en el vacío. No es sólo un “cesto de algoritmos”. No es simplemente tecnología; al ser desarrollada por humanos, también es ideológica. El big data se está usando ya para discriminar por edades o clase social, nos rastrean con el pretexto del Covid-19, ...

Desde esa perspectiva, ¿qué tipos de IA deberían permitirse? ¿Es cuestión de los programadores o de los gobiernos/grandes corporaciones y sus seguidores definir la naturaleza de ese sistema que podría enfrentar una IA (Silicon) contra otra (China) en la lucha por el control del espacio y del ciberespacio como horizonte para la expansión industrial de este siglo?

Cuando pensamos que amenaza nuestra capacidad de abordar las desigualdades sociales y de enfrentarnos a las estructuras de poder, es porque está diseñada en base a un tecnoautoritarismo

que maneja con opacidad gigantescas bases de datos humanos que nos roban sin preguntar. Mientras va generando una cibergeneración de dependientes de móviles, ordenadores y videojuegos que se socializan en el espacio y no en la comunidad.

De hecho, la IA, convertida en un enorme negocio y una impresionante maquinaria de control en evolución constante, genera tal diversidad y complejidad de problemas e incertidumbres, que gobiernos, instituciones, oligarquía científica e incluso grandes corporaciones se han parado a reflexionar sobre lo llamado roboética, de cara a una posible legislación futura.

Si bien existen diferencias de enfoque, sí que se podrían señalar una serie de parámetros comunes: desarrollo de la IA por el bien de la mayoría; reducción del riesgo de exclusión; control ético de la investigación; transparencia y cooperación en el desarrollo de la IA; necesidad de control humano sobre los sistemas robóticos; no desarrollo de la IA para armas de destrucción; sostenibilidad; dada la incertidumbre sobre su potencial futuro, necesidad de repensar las regulaciones; regulación del transhumanismo, esto es, de

La IA no se desarrolla en el vacío. No es sólo un “cesto de algoritmos”; al ser desarrollada por humanos, también es ideológica.

¿Qué tipos de IA deberían permitirse? ¿Es cuestión de los programadores o de los gobiernos/grandes corporaciones y sus seguidores definir la naturaleza de ese sistema?

Genera tal diversidad y complejidad de problemas e incertidumbres, que se han parado a reflexionar sobre lo llamado roboética, de cara a una posible legislación futura.

Retos y riesgos de la Inteligencia Artificial

la mejora de las capacidades humanas –físicas y/o intelectuales– a través de la tecnología y que trascienden los límites humanos.

Suena muy bien, pero faltan líneas rojas, concretas y directas. Porque la verdad, sabemos de qué son capaces los gigantes tecnológicos y no parece que con sólo este “desiderátum” se les quite el sueño a ninguno de ellos. Menos aún, conocido el contexto de pugna geoestratégica entre EEUU/China.

Debería por tanto ser deber imperativo de la izquierda vasca/internacionalista debatir sobre sus implicaciones, sobre la necesidad de dismantelar el monopolio de las grandes empresas del eje anglo-sajón en materia de conocimiento y, cómo dicen desde Cuba, profundizar sobre la incorporación a la sociedad del conocimiento pero desde una perspectiva socialista/progresista.


De ahí que vayan surgiendo organizaciones colectivas, como las *data cooperatives*, para impulsar el empoderamiento digital de la ciudadanía. De ahí que, desde Le Monde Diplomatique, C. Durand y Keucheyan sugieran que “si se socializaran los datos, se pusieran bajo control democrático y se reorientaran hacia objetivos de utilidad social, contribuirían al surgimiento de soluciones de recambio al mercado”. De ahí que haya que buscar solución a los ya mencionados clientelismo e imperialismo digitales.

Entre China y Cuba, por ejemplo, ya han acordado la creación de una institución conjunta para el desarrollo de la IA desde la que impulsar, entre otras, propuestas educativas relacionadas con su didáctica y enseñanza.

Ahora que la amenaza del virus hace que se nos plantee una

escuela sin “papel ni balones”, no está de más mencionar que, mientras debatíamos sobre el tiempo que nuestros/as menores deben dedicar a las pantallas, la tecnología emergente en forma de IA y de *machine learning* estaba ya en marcha, alterando las herramientas educativas y decidiendo lo que puede ser la educación en el futuro. Una vez más, el mercado decide.

Es vital que la reproducción material colectiva se organice bajos otras relaciones sociales y nacionales lo más descontaminadas posible de las de valor capitalistas. En el caso de la IA, frente a la vigilancia autoritaria perfeccionada gracias a esta, tenemos que empoderar a la sociedad generando, desde nuestra realidad, y entre otras cosas, escuelas disruptivas para que un instrumento tan potente pueda ser también herramienta de transformación social.



Se debe, como dicen desde Cuba, profundizar sobre la incorporación a la sociedad del conocimiento pero desde una perspectiva socialista/progresista.

“Si se socializaran los datos, se pusieran bajo control democrático y se reorientaran hacia objetivos de utilidad social, contribuirían al surgimiento de soluciones de recambio al mercado.”

Es vital que la reproducción material colectiva se organice bajo otras relaciones sociales y nacionales lo más descontaminadas posible de las de valor capitalistas.

La pandemia del COVID19 nos ha traído una nueva relación con tres valores que moldean nuestra existencia: salud-seguridad-libertad. Ante la incertidumbre sanitaria [¿enfermaremos?] e incluso su derivada social [¿cómo saldremos adelante como colectivo?] y económica [¿cómo nos recuperaremos?] demandamos seguridad. Se apodera de nosotros/as una percepción de inseguridad que queremos aplacar. Además de esa interpretación de seguridad, vinculada a tranquilidad, confianza, exención de riesgo... hay una demanda más específica, referida a ese servicio público, gestionado por los mecanismos de seguridad y defensa públicos [policía, agencias de emergencias, ejército...] **¿es compatible la oferta de seguridad que nos ha prestado el Mando Único con la demanda de seguridad de la sociedad vasca? Veremos que no.** Finalmente, esa solicitud de seguridad ha modulado a su vez una nueva relación con la libertad, con la habitual reivindicación de derechos y libertades, obligándonos a asumir su limitación por un valor superior de responsabilidad cívica **¿queremos seguridad aún a pesar de verificar que esta restringe nuestra libertad?** Inquietante. **Todo eso, en apenas un par de meses.**

Julen Arzuaga.
EH bilduko legebiltzarkide eta abokatua.



Fotografías: FOKU

Por partes. Históricamente hemos tenido una relación conflictiva hacia el servicio público de seguridad, basado en el agravio y la desconfianza. Un servicio que se presta en cualquier sociedad moderna en cualquier país del mundo (desde la cabeza de león del Imperio hasta su cercana Cuba revolucionaria) con sus propias circunstancias en cada contexto. Desde nuestro confinamiento (y para nuestra indignación), hemos visto al ejército en nuestras calles, no sabemos muy bien haciendo qué. Hemos visto homenajes de la Ertzaintza y la policía

municipal a la Guardia Civil en Intxaurren. ¿Eran funciones normalizadas y necesarias de seguridad? No, es relato político. Es ruido para asentar una narrativa concreta, muy apegada a ese pasado. ¿Porqué comparecían los jefes de Cuerpos de Seguridad del Estado ante los periodistas en los primeros momentos de la pandemia? ¿Qué aportaba una silente Beltrán de Heredia junto a Urkullu? Pues que alguien, en su relato comunicativo, interpretó que ofrecían tranquilidad, confianza, seguridad... y que, en momentos de shock, conectaban con una sociedad que, en su

percepción de inseguridad, demanda ese servicio. Marketing, decorado, autopropaganda... pero efectiva.

Hemos visto también la actuación de la Ertzaintza en San Francisco contra un joven inmigrante y su madre o en Olabeaga contra un joven que viaja en bicicleta, imágenes en las redes sociales de porrazos policiales a presuntos trasgresores de la cuarentena. Imágenes que nos interpelan más en las formas (desproporcionadas, arbitrarias, inaceptables), que, en el fondo, que es a donde quiero llegar. Hecha la crítica, por inaceptable,

Salud-seguridad-libertad: el autoritarismo amable





¿Queremos seguridad aún a pesar de verificar que esta restringe nuestra libertad?


llegamos a la cuestión: ¿es necesario una gestión de seguridad en una crisis sanitaria? ¿Cómo abordarla?

Apuntábamos la intromisión de las medidas de seguridad en la libertad. ¿Están justificadas o han sido profundamente exorbitadas e injustificadas? ¿Es legítimo restringir movimientos ante la pandemia o es una intromisión insoportable del poder en nuestra libertad? ¿Cómo se debe de actuar para confinar a 3.000.000 de vascos y vascas? Paradójicamente se ha levantado

la voz desde posiciones antagónicas: algunos han culpado a la burguesía que irrumpe contra los derechos políticos de la clase trabajadora, otros han protestado porque el gobierno comunista les impide sus sagradas libertades individuales. No voy a frivolizar diciendo que en el medio está la virtud, porque el esquema requiere más profundidad y elementos. Principalmente porque no es lo mismo las condiciones de confinamiento y las sociolaborales que de él se derivan para una clase social

u otra. Sin embargo, ante estas circunstancias, restringir derechos individuales para preservar valores colectivos era absolutamente necesario. Por eso han reaccionado mal la patronal y su terminal en el Gobierno de Gasteiz, porque querían compatibilizar la producción económica con el encierro para todas las demás facetas de la vida de su mano de obra. Situar ahí la crítica es lo correcto.

Porque, efectivamente, si aspiramos a crear una sociedad corresponsable e inter-solidaria, era



Históricamente hemos tenido una relación conflictiva hacia el servicio público de seguridad, basado en el agravio y la desconfianza.

preciso restringir derechos de movimiento (y con ellos de reunión, manifestación), que considero se pueden justificar, incluso por quienes hacemos política a pie de calle, porque el objetivo (la salud pública y el derecho a la vida de nuestra comunidad) se percibe como un bien superior. Porque, precisamente, la actuación política va de sopesar valores, principios e incluso derechos en pugna, para adoptar una decisión u otra. Porque, como se ha visto en actuaciones incívicas durante el desescalamiento (y

sin pretensión de generalizar) la sociedad requiere de algo más que una apelación a la responsabilidad personal, individual, para actuar de manera sensata y prudente. Requiere, si, mensajes comprensibles y directos. Requiere de empatía y asertividad. Y también inspiración, para animar a hacer lo correcto. Pero también una práctica de seguridad que les acompañe a interiorizar esos mensajes, en algunos casos de forma apremiante, (si, esto va en serio, es por ti, pero por la comunidad en su conjun-

to), enfrentando si se quiere, con rigor (pero sin actitudes represivas) actitudes antisociales. Conjugando el bien individual con el fin colectivo. Algo que interpreto se ha hecho moderadamente bien desde algunos municipios, entidad más próxima a la ciudadanía.

Sin embargo, ¿cual ha sido la herramienta estrella para llevar a efecto el confinamiento? La Ley Mordaza. ¿Ha sido adecuado su empleo extensivo? Rotundamente, no. En Hego Euskal Herria, se habría aplicado la

Ley Mordaza en 27.519 ocasiones hasta la llegada de la 1ª fase (desde su promulgación en junio de 2015 se habría aplicado otras tantas veces). En términos de recaudación, supondrá para las arcas públicas en torno a los 17 millones de euros. Pero la letra pequeña es aún más perversa. La policía municipal ha aplicado esta ley en muchas más ocasiones que la Ertzaintza. ¿Cómo es posible, siendo además que son tres veces más efectivos la policía autonómica (7.500) que la local (3.500 efectivos)? Hemos apuntado que el gobierno vasco ha querido compatibilizar confinamiento y producción, sin duda, una decisión política de clase. Dicha decisión ha tenido su efecto frenando el dispositivo de seguridad por parte del Departamento. Mientras que la policía municipal, sobre todo en los pequeños municipios y en rasgos generales, solo ha tenido como objetivo practicar un confinamiento apropiado, compatibilizándolo adecuadamente con salidas de abastecimiento y cuidados, la Ertzaintza ha tenido que mantener el equilibrio entre el mantenimiento de tasas bajas de contagio que favorezca... efectivamente, la producción.

¿Quiere decir esto que doy por buenas las sanciones de la Policía Municipal en aplicación de la Ley mordaza? No. Efectivamente, nos encontramos ante una herramienta maldita, empleada extensivamente para enfrentar la tarea de encerrar a la gente... porque no había otra. La ley de emergencias u otras que regulan el empleo de espacio público no daban las posibilidades discrecionales de la Ley de Seguridad Ciudadana. Una Ley que ya estaba en el arsenal policial, estaba a mano. Eso pasa con las medidas excepcionales que se aprueban una vez, justificadas en circuns-

¿Es legítimo restringir movimientos ante la pandemia o es una intromisión insoportable del poder en nuestra libertad?

¿Cual ha sido la herramienta estrella para llevar a efecto el confinamiento?

La Ley Mordaza. ¿Ha sido adecuado su empleo extensivo? Rotundamente, no.

Hemos reaccionado más en las vísceras que desde la razón, desde nuestras certidumbres (no queremos ejército, no queremos brutalidad policial, no queremos Ley Mordaza) que desde la incertidumbre del modelo que debemos construir.

tancias, prioridades o mayorías concretas y trascienden a ellas para quedarse. Y van sedimentando para, cuando se muestre la ocasión, recurrir a ellas, de forma extensiva como la actual. La Ley mordaza era perversa porque agazapadas entre actitudes incívicas (animales peligrosos, empleo inadecuado de pirotecnia, uso indebido de vehículos..., ¡quién se opone a sancionar esos hechos!) se esconde la brutal lesión de libertades públicas fundamentales. Y es más perversa ahora porque la supuesta desobediencia a la autoridad (y su presunción de veracidad, claro) exime de apercibimiento y se adelanta a la letra (y propia lógica) del texto legal, tal y como denuncian reputados juristas. Doblemente injusta además porque no ofrece herramientas de oposición o defensa a su perjudicado. Un procedimiento contencioso-administrativo en el que la víctima intentará oponerse a una sanción ya impuesta, ratificada por la autoridad administrativa (en este caso el Director de la Ertzaintza) y en la que el juez intervendrá tarde y mal. En el nuevo real-decreto de medidas de justicia para la desescalada no hay ninguna que facilite y agilice el recurso o la revisión contenciosa-administrativa de estas sanciones, en un Estado en que las sanciones han ascendido a 1.000.000 de casos. Esta ley, convertida ya en el buque insignia de medidas represivas, arrambla con garantías procesales de defensa e instala el principio de veracidad policial sobre cualquier otro, como es el de seguridad jurídica o tutela judicial efectiva. Vuelvo a la idea. Es legítimo forzar a un ciudadano a recluirse. Si. Pero los instrumentos que esta ley ofrece a la policía para ello son draconianos.



**¿Como actualizar/
construir nuestro
modelo de seguridad
-que es de lo que se
trata- ante semejantes
circunstancias?**

**No voy a cerrar ningún
debate. Pero sí que
quiero atreverme a
plantearlo. Es preciso
una intensa reflexión
ciudadana sobre las
formas y el fondo en
materia de seguridad**

Hemos reaccionado más en las vísceras que desde la razón, desde nuestras certidumbres (no queremos ejército, no queremos brutalidad policial, no queremos Ley Mordaza) que desde la incertidumbre del modelo que debemos construir. No intuimos las agencias vascas de seguridad que necesitamos, la gobernanza de seguridad no para intereses particulares (mantener la producción) sino para intereses de todo el colectivo (salud, cuidados, empleo responsable del espacio público...). No acertamos a visualizar las herramientas legales que necesitamos para ello (sanciones proporcionadas con rigurosas garantías de tutela judicial para el perjudicado) ni como dotarles de vigor legal. Nos han colado un servicio de seguridad porque estábamos en situación de shock, preocupados, atemorizados, desmovilizados y aislados (y ellos lo sabían). Y ahora, toca deconstruir y reconstruir alternativa sobre lo


aprendido. Algo que se acumula a nuestro acervo ideológico y a nuestra práctica política frente a la gestión de seguridad en el marco de la excepción política (participación policial y parapolicial en el conflicto político), social (brutalidad contra emigrantes, en deshaucios, conflictos medioambientales...), laboral (huelgas, protestas sectoriales...) y que debemos hacer extensivo a la novedosa excepcionalidad sanitaria novedosa. ¿Como actualizar/ construir nuestro modelo de seguridad -que es de lo que se trata- ante semejantes circunstancias?

No voy a cerrar ningún debate. Pero sí que quiero atreverme a plantearlo. Es preciso una intensa reflexión ciudadana sobre las formas y el fondo en materia de seguridad. Algunos autores nos advierten de que el autoritarismo no se mostrará en nuestras sociedades occidentales de manera brutal y explícita, a la manera de las viejas dictadu-

ras. Lo hará de manera amable, imperceptible. Lo justificaremos ante el shock, el estado de necesidad, la catástrofe... Y dicho autoritarismo será el más peligroso, porque no antepondremos alternativa. Con la gestión de seguridad durante la pandemia nos hemos deslizado ya por esa pendiente resbaladiza. La oferta política conservadora de seguridad no vale. Pero todavía, agravios y perjuicios del pasado no nos permiten pasar de la crítica (certeza) a la construcción de un modelo distinto (con su dosis de incertidumbre, necesidad de solventar contradicciones, asumir le esquema de prueba-error, caer, levantarse, avanzar). No solo en el papel, sino en la práctica. No filosóficamente perfecto, sino bajando a pie de calle. Llevar a la práctica una nueva oferta política en materia de seguridad. Manos a la obra.



Euskara bidegurutzean. Berritze ideologikorako gakoak



AZKEN URTEAK NORAEZ GARAIK IZAN DIRA
HERRIGINTZAREN ESPARRU ZENBAITETAN.
ORDURARTEKO PARADIGMAK AGORBIDEAN
ZEUDENAREN SENTIPENAK INDARRA HARTZEAZ
BATERA IPAR GARBIRIK EZ IZATEAK EZINEGONA
SORRARAZI DU. ESANGO NUKE HALAKOXE EGOERAN
EGON DELA EUSKALGINTZA AZKEN URTE LUZEETAN.



Pello Otxandiano Kanpo.
Sotuko Herrigintza idazkaria

Argazkiak: FOKU

Gaur oso jende gutxik ukatuko du euskalduntze fase oso bat agortu dela, orain arteko hizkuntza politikek goia jo dutela.

COVID-19aren krisiak ageri-agerian jarri du euskara zein zaugarria den. Josu Amezagaren hitzak dira: “Beste halako bi eta euskararenak egin du”.

Bidegurutzean zein bide hartu erabaki ezinik batzuen iritzi, errotondan bueltaka besteen ustetan. Gaur oso jende gutxik ukatuko du euskalduntze fase oso bat agortu dela, orain arteko hizkuntza politikek goia jo dutela, jauzi kualitatibo bat behar dela, erreakzio azkar bat. Nahi den moduan esan daiteke baina antzerako zerbait esaten ari gara denok.


Ezbairik gabe ETaren zikloaren itxierak erdiz erdi gurutze du euskalgintzaren krisia. Garai politiko berriaren onuradun handietako bat izan ahalko zitekeen euskara. Ordurarte posible izan ez zen akordio soziopolitiko handi baten objektu, euskarak

XXI. mendean behar dituen politikak diseinatzeko orube komuna jarriko zukeena. Ez da hala izan. Aldaketa aroaren –edo aro aldaketaren– zurrumbiloan murgilduta iragan ditugu azken urte luzeak, ezagutu dugun mundu bat urtzen eta beste bat gorpuzten ari zela geroz eta argiago genuela. Eta mundu berri horretan euskara gure proiektu politikoan nola kokatu erabat asmatu ezinda.

2015ean Jakin eta UEUK Katakraken antolatutako zutenean “Euskara, nazioaren eta estatugintzaren erdian” ikastaroan isladatu zen ikuspegi ezberdinen arteko talka. Ikastaro hartako sarrera hitzaldian esandakoak liburu

batean bildu zituen ondoren Joxe Azurmendik –Hizkuntza, nazioa, estatua, Elkar 2017–. Euskara eta burujabetza prozesua, zer eta nola: horixe eztabaidaren funtsa. Igaro dira urte batzuk ordutik eta esango nuke ikuspegi argiagoa dugula dagoeneko. Gogoetagai nagusien kondentsazio moduko bat gertatu dela eta ipar bat finkatzeko moduan egon gaitezkeela ireki berri den hamarraldi honi begira.

Beharra ere bai baitago. Beharra baino gehiago, urgentzia. COVID-19aren krisiak ageri-agerian jarri du euskara zein zaugarria den. Josu Amezagaren hitzak dira: “Beste halako bi eta euskararenak egin du”. Ez gaude




Hizkuntza eskubideen
aldeko borroka
botere-harremanak
eraldatzearekin lotzen da
beraz, justizia sozialean
eta demokrazian
oinarritzen den beste
jendarte eredu baten
aldeko ekimena da.

**Euskal egitasmoak
homogeneizazioaren
kontrakoa,
berdintasunaren eta
askatasunaren aldekoa
behar du.**

**Ametsa barreiatuko
duen mugimendua
behar du garai
honek, euskal hiztun
kontzienteak sortzeko
gai diren praktika
diskurtsiboak.**

**Feminismoak egiten
duen bezala, hizkuntza
gatazka azaleratuko
duen lan-molde eta
forma askotariko
praktika politiko
euskaltzale baten
premia dugu.**

**Menderakuntza-
sistema ezberdinetako
botere-harremanak
esplizitatu eta elkar
ahalduntzeko guneak
sortu behar dira.**



beste hamarraldi bat galtzeko, eta euskalduntze prozesuaren biziberritzeak ezkerreko independentismoaren arnasa behar du. Horri erantzun nahi dio, hain zuzen, Plaza Hutsan egiten ari den gogoeta prozesuak. Otsailaren 22an, Gasteizko Europa jauregian, urte honen bukaera aldera itxi nahi den gogoeta prozesu ireki baterako oinarritzko dokumentua, “Euskalduntze fase berri baterako gogoetak” izeneko, eztabaidatu zen.

Dokumentu horrek orain arteko euskalduntze fasearen balantzea egiten du lehenik eta behin, euskarak egun bizi duen egoeraren analisia ondoren, eta bulkada berri baten beharraz mintzo da azkenik. Azken hau da dokumentuaren atal nagusia, zeina euskalgintzaren biziberritzea pentsatzeko ekarpena den funtsean. Euskalgintzak berrikuntza ideologiko baten premia duela planteatzen du eta hizkuntz-ideologia ezker independentismoaren corpus ideologikoan ondo txertatzea ezinbestekoa dela. Zentzu horretan, dokumentu hau azken boladan egiten ari garen ahalegin zabalago baten parte da: askapen mugimenduaren oinarri ideologikoen eguneratzea. Honatx dokumentuaren muina:

Berrikuntza ideologikoa

Zailtasunak ditugu euskararen gorpuzte sozialerako eta euskal hiztunen eskubideak bermatzeko beharrezkoa den aterki ideologikoa gaur egungo mundura egokitzeko, berritutako eta egokitutako diskurtsoen bidez.

Diskurtsoa berritzeko, bi ildo dira bereziki interesgarriak, itxura batean kontraesankorrak eman dezaketenak, baina, sakoan osagarri direnak: batetik, hizkuntza gatazka identitate auzi hutsetik ateratzen duen diskurtso eta praktika lerroa.

Hau da, euskaldun/ez-euskaldun parametroetatik jauzi egin eta herritar/hiztun eskubideetara eramane; hots, demokrazia eta justizia sozialaren terminoetara. Feminismoak edota erabakitze eskubidearen gaineko diskurtsoak egin duen bezala, alde aurretik identitarioak liratekeen auziak herritar/ez-herritar, eskubide osoko/eskubiderik gabeko, demokrata/ez-demokrata parametro unibertsalizatueta eramatea. Hizkuntza eskubideen aldeko borroka botere-harremanak eraldatzearekin lotzen da beraz, justizia sozialean eta demokrazian oinarritzen den beste jendarte eredu baten aldeko ekimena da.

Horren osagarri litzatekeen ildo diskurtsiboak, berriz, herri/kultur identitatearen aldarrikapenaren ezkerreko irakurketa positiboa berreskuratu beharko luke: pertsonen eta kolektiboen nor izatearen, burujabetzaren (erabakimenaren) esparruan kokatu. Kultur homogeneizazioa da neoliberalismoaren lanabes eragingarrienetako bat, desira eta espektatiba berdinak dituzten pertsonak nahi ditu munduko edozein lekutan. Esan bezala, euskal egitasmoak homogeneizazioaren kontrakoa, berdintasunaren eta askatasunaren aldekoa behar du.

Identitatearekin egiten dugu topo hemen eta horrekin lotutako sentimendu eta ideiekin. Auzi hau ez da iraganeko kontua, partikularitasunera kondentatzen gaituena balio unibertsalen aldean. Aitzitik, globalizazioaren krisiaren garai honetan funtsezko aldagaia bilakatu da. Izan ere, globalizazioaren arrakastaren ospakizunak atzean utzita, burujabetzaren aldeko diskurtsoak indarrez datoz bueltan. Neoliberalismoak taldetasuna hausten du, kolektiboa, komuna, publikoa dena pribatizatuz; nor-

banakoa bakar-bakarrik nahi du merkatuaren aurrean. Jendar-te hauskor eta fragmentatuak dira gaurkoak, talde baten parte sentitzeko premia bizia dutenak. Identitatearen eraikuntzari, nor izateari (nor-tasunari), edo, nahi bada, nazio kontakizunari etorkizuneko proiektzio eraldatzailea emateaz ari gara.

Berritze ideologiko hau ezkerreko independentismoak fase politiko honetan behar duen berrikuntza ideologikoaren parte da, eta, beraz, erabat txertatuta behar du askapen egitasmoaren corpus ideologikoan. Euskarak askapen egitasmoan izan duen erdigune sinbolikoa birdefinitzea da proposatzen ari garena.

Euskalgintzaren biziberritzea

Euskalduntzearen gisako erronka bat herri-mugimenduaren bultzadaz baino ezin gauza daiteke. Esan bezala, premiazkoa deritzogu mugimendu euskaltzalearen biziberritzea. Ametsa barreiatuko duen mugimendua behar du garai honek, euskal hiztun kontzienteak sortzeko gai diren praktika diskurtsiboak. Hain zuzen, proposatutako berritze ideologikoaren bidetik, hizkuntza eskubideen eta justizia sozialaren aldarria herri-egitasmo emantzipatu batekin josiko duen praktika diskurtsiboa faltan dugula deritzogu, euskaltzaletasuna garaiko mugimendu sozial emergenteekin (feminismoa, ekologismoa, arrazakeriaren kontrakoa) sintonizatu eta artikulatuko duena. Euskalgintzaren biziberritzerako hiru bide proposatuko ditugu hemen.

Lehena urte luzeetako borroka-jarioa eguneratzea da. Lutxo Egiak mugarri bat jarri zuen 2015ean. Donostiako Egia auzoak hartu zion lekukoa, Lasarte eta Agurainek ondoren, hasierako ekintza performatiboa ekimen kolektibo berritzaile bihurtu

zen. Euskal hiztunak ahalduztzearen bidez hizkuntza gatazka esplizitatu eta izendatzea zen helburua. Errekasto hura emari handiko ibai bilakatu da Euskaraldiari esker. Euskaraldiaren onurak zerrendatzeak luze joko luke. Potentzial handiko ekimena da, aldaera ezberdinak izan ditzakeena eta tokian tokiko errealitatera egokitzeak aukerak ematen dituena. Ekimen honek ez-euskalduna modu abegikorrean interpelatzen du, eta horrela behar du. Baina, aldi berean, interpelazio hori bera beste maila batzuetara eramango duten ekimenen faltan ere bagaudela deritzogu. Feminismoak egiten duen bezala, hizkuntza gatazka azaleratuko duen lan-molde eta forma askotariko praktika politiko euskaltzale baten premia dugu, hizkuntzaren auzia problematizatu eta hizkuntza politiketan aldaketak beharrezkoak direla ikusaraziko duena.

Interseksionalitatearen bidea jorratzen duen elkargunearen ideia da bigarrena. Feminismoaren, ekologismoaren edota arrazakeriaren kontrako mugimenduaren eta euskaltzaletasunaren arteko gurutzaketak bilatzea. Hizkuntza praktika kontziente bat egiten dugun euskaldunon azpiratzea bestelako menderakuntzekin gurutzatu dadin. Horrela, menderakuntza-sistema ezberdinetako botere-harremanak esplizitatu eta elkar ahalduztzeko guneak sortuz. Euskara feminismoaren, ekologismoaren edota arrazakeriaren kontrako mugimenduaren hizkuntza izan dadin, mundu berri baten ametsaren gogo-eroale bihurtu dadin. Globalizazio neoliberalaren totalitarismo berriari aurre egiteko lekune bat, praktika bat, politika eta estetika bat (ez hori bakarrik, baina hori ere bai). Talde feminista euskaltzaleak, ingurume-

naren zaintza sustatzen duten mendi-talde euskaltzaleak, herri hezitzaileen filosofian txertatutako esperientziak eta abar.

Euskal kulturgintza sistema indartzea da hirugarrena. Hizkuntzaren jabekuntza hutsetik landa, komunikazio sinbolikoan, afektiboan eta kultur komunikazioan jarritz lehentasuna. Hizkuntza batek ez baitu etorkizunik kultur sistema beregainik gabe. Egun, euskaldunok, ez dugu aukera sendorik komunitate gisa identifikatzeko, haserretzeko, pentsatzeko, pozteko, irakurketa sentikor bat adierazteko. Kultur eredu burujabea eskala lokaletik sustatzeaz ari gara. Arte eszenikoak, literatura eta zinemagintza oinarri gisa hartuz, eskala lokala eremu estrategiko kontsideratu eta esperimentazio guneak sortzea izan liteke etorkizuneko politika kultural orokorrako baten zutabe bat.

Hizkuntza batek ez du etorkizunik kultur sistema beregainik gabe. Egun, euskaldunok, ez dugu aukera sendorik komunitate gisa identifikatzeko, haserretzeko, pentsatzeko, pozteko, irakurketa sentikor bat adierazteko.



Weston Mackinnon, Unsplash.

Konfinamendua kaiola barruan



Kepa Petralanda eta Naike Diez.
Etixerat elkarteko kideak

Inork gutxik espero genuen gaixotasun batek mundua gera zezakeenik, baita espetxeen mundua ere. Etxeetan gotortzea egokitu zaigunean, barroteen barruan diren pertsonak konfinamenduaren jarraipena bizi behar izan dute. Espetxean izatea konfinamendu gogor baten isla izan daiteke eta.

“Bakartuak eta urrunduak
diren senide presoak are
bakartuago sentitzera behartu
ditu alarma egoerak.”

Alarma egoera ezarri zen unetik, bisitak eta, noski, lekualdaketak bertan behera geratu ziren espetxe administrazioaren aginduz. Bakartuak eta urrunduak diren senide presoak are bakartuago sentitzera behartu zituen neurri honek. Senitartekoek ezin bisitarik egin, ezin bidaiarik egin eta harremanetarako tresnak berdinak izaten jarraitzen zuten. Andaluziako autobusa eta Mirentxineko elkartasun gidarien taldeak garaje barruan utzi behar izan zituzten beraien ibilgailuak. Azken bisita presentzialen data: martxoaren 14a.

Espetxe Zaintzak eta Barne Ministerioak hartutako lehen erabakia espetxeak isolatzea izan zen. Bisitak bertan behera geratuz, kanpotik zetorren gauza oro ere blokeatu zituzten hasiera batean: posta, egunkariak... kanpo lotura ia erabat etenda izan dute presoek denbora tarte handi batean.

Horren sendagaia telefono-deien kopurua ‘igotzea’ izan zen; 8tik 12 deitara, batzuk 15era ere, baina horrek ez du isolamenduaren gaitza erabat sendatzen. Egun batean bi dei egiteko aukera izan dute presoek, goiz eta arratsalde, baina kabledun salatari bati itsatsia egotea ez da egoera samurra.

Alabaina, barruko bizimoduak ez du aldaketa askorik pairatu alarma egoera ezarri denetik. Egia da hainbat espetxetan patio orduak murriztu edota tailerrak itxita dituztela, baina ñabardura txiki horiek kenduta presoaren egunerokotasunean ez da apenas aldaketarik izan. Ohiko ordutegiak, betiko moduluan eta betiko trataera desegokia.

Babes-neurri aldetik, espetxe administrazioak euren buruei begira bakarrik ibili dira. Gure bizitzetan agertu eta geratu diren maskara eta eskularruak bertako langileen eskura daude bakarrik. Denda edo etxe guztietan dugun gel hidroalkoholikoa ‘pribilegio’ izendatu daiteke espetxean, presoek toki gutxitan dute eskuragai eta notizia izan daiteke askorentzat. Ehunka presok erabiltzen duten telefonoa desinfektatzeko izan dezakete gel apur bat, agian, edo trapu zikinen bat jarriko diete aldame-nean. Ez dago presoei begirako babes-neuririk,



Matthew Ansley, Unsplash.

kezkatuagoak dira funtzionarioek kanpotik ekar dezaketenaz eta horren prebentzioaz.

Bada Espetxe Zaintzak hartutako erabaki bat aipatzeko eta azpimarratzeko beharra: bideo-deien baimentzea. Konfinamendu eta aislatze egoeran jendearen aurpegia ikusteko aukera bilakatu den bideo-deia barrote barrura ere iritsi da, eta espero dugu bertan geratzeko neurria izatea. Hasiera batean 200 mugikor inguruko banaketa egin zuten espainiar estatuko espetheen artean eta horren erabilera mugatua izatea erabaki zuten; soilik dirurik ez duten presoek edota egoera berezi batean dagoenei zuzendua izandako aukera izatea.

Tantaka-tantaka, eta tramitazioetan izerdi askotxo botata, ia espetxe guztietan ahalbideratu da bideo-deiak egiteko aukera. Bisitak ez izatearen alternatiba gisa hartutako neurriak arnas pixkat hartzeko aukera eman die bai presoek zein beraien senitartekoei. Beraien aurpegiak berriro ikusteko aukera izan dute eta aurrerago berrartuko diren bisiten analgesiko txikiak bilakatzen ari dira. Alarma egoeraren ostean ahalbideratu duten komunikazio bide hau mantentzea onura handikoa litzake urrunduak eta isolatuak dauden presoekiko harremana indartzeko.

Begiak Frantziar Estatura jarritz gero, apenas dugu albiste edo berrietasunik aipatzeko. Bertan bai ez dela ezertxo ere aldatu barruko espetxe bizimoduan zein kanpo harremanak aztertuz gero. Babes-neurri batzuk hartu badituzte ere, funtzionarioen osasunari begirakoak izan dira batik bat. Gimnasio edo toki komun batzuen itxiera kenduta, bertako presoek ez dute egoera berezirik bizi izan kanpo harremanak bertan behera geratu izanaz aparte.

Martxoaren 14tik hona abiatutako konfinamendu eta bakartze egoerak, presoek are bakartze eta isolatzea ekarri du. Etxetik ehunka kilometrotara ditugun senide presoak aspaldian bizi izan dute konfinamendu perpetuo eta krudel bat. Alarma egoerak zama gehiago erantsi die zartatuak dituzten bizkar gainera, eta espetxe administrazioek hartutako neurriak (edo, hobeki esana, hartu ez dituzten neurriak), sufrimendu gehigarria izan da gure inguruarentzat.

Ezohiko elkarguneak ezohiko egoeran

Murruetatik kanpo, espetxe administrazio eta Gobernuaren geldotasun eta apatia ikusirik, eragile eta gizartearen babespean osa zitezkeen adierazpen eta adostasunak sustatzen ibili gara, beharrezko bultzada eta presioa eragin asmoz. Kontzientziazio

“Barruko bizimoduak ez du aldaketa askorik pairatu alarma egoera ezarri denetik. Ohiko ordutegiak, betiko moduluan eta betiko trataera desegokia.”

“Ez dago presoek begirako babes-neurririk, kezkatuagoak dira funtzionarioek kanpotik ekar dezaketenaz eta horren prebentzioaz.”

“Alarma egoeraren ostean ahalbideratu duten komunikazio bide hau [bideo-deiak] mantentzea onura handikoa litzake urrunduak eta isolatuak dauden presoekiko harremana indartzeko.”



soziala piztu eta lantzea ardatz nagusi ikusi dugu itxialdi egoera honetan eta, elkarlana landuz, inoiz ireki gabeko ate batzuen sarraiak zabaltzea lortu dugu.

Nabarmenezkoa da #SOSPresoakCovid19 izenburupean Nafarroan sustatutako dinamika. Bertan SARE Herritarrak, Salhaketak, Altsasuko Gurasoak eta Etxerat elkarteak Nafarroako koadro politiko, sindikal eta soziala aldarri batzuenpean batzea lortu du. 65 urtetik gorakoen zein larri eri diren presoak, haurdun diren emakumeak zein espetxean dauden seme-alabak eta irteera-data hurbil duten edota 3. graduan diren presoek berehalako askatzea izenpetu dute.

Estatu mailan, 'historikotzat' jo daitekeen adierazpena izenpetu zuten maiatza hasieran 9 alderdi politikok. Kataluniako, Galizako eta Euskal Herriko alderdi abertzale eta ezkertiarrekin batera, Podemos eta Más País alderdi espainiarrak batu ziren espetheen aferako berehalako neurri batzuen eskaripean.

Nazioartetik ere iritsi dira izen handiko pertsonalitate ezberdinen aldarri eta idatziak. Andy Carl, Brian Currin, Veronique Dudouet, Adolfo Perez Esquivel edota Manuel Zelayaren neurriko pertsonak Frantzia eta Espainiako gobernuak interpelatu izana haintzat hartzeko mugarri ere har daiteke. Euskal preso zaurgarrien berehalako askatasuna eta askatasun alternatibak sustatzeko deia luzatu zuten.

Hilabete hauetan plazaratutako hamaika adierazpen, interpelazio eta eskari ez dira ezohiko egoera

batean errentagarritasuna ateratzeko ekimenak izan. Nazio Batuen Erakundeak (NBE), Osasun Mundu Erakundeak (OME) eta Europako Kontseiluak epidemiaren hastapenetik espetxeetako kuadeaketarako hainbat irizpideen baitako irakurketak izan dira.

Zoritxarrez, Estatu Espainiarrak zein Frantziarrak euskal preso politikoengan ezarria duen salbuespen legedi eta politika ageriko geratu da osasun krisi honen barruan. Esate baterako, Frantziar Estatuak askatu dituen 12 mila presoek artean ez da EPPKko kiderik izan. Askatasuna eskuratzeko baldintzak (gaixo larriak, adinduak, prebentiboak eta irteera-data hurbil izatea) betetzen zituzten 6 euskal herritar ditugu gure artean eta, beste behin ere, ankerkeri politika deitu daitekeen salbuespen politika ezarri zaie.

Iberiar penintsulara itzuliz, presoek eskubideak bermatuko dituen deseskalada prozesu bat adostu eta plazaratu genuen estatuko hainbat eragilek. Espetxe Zaintzari eta bere enparauei hartu beharreko neurriak zehaztu genituen eta, bide batez, urrunketa politikaren berehalako indargabetzea exijitu genuen. Andaluziako, Murtziako, Madrileko eta beste hainbat herrialdeetako eragile sozial urrunketa politikaren aurka posizionatzea eragin du Koronabirusaren zurrumbilo honek.

Deseskalada prozesua aurrera eramaten ari den honetan, urrunketa politikak atzetik duen mende-ku oinarriak begi bistan geratu dira eta, enegarren aldiz, salbuespena aplikatzen zaigu EPPKko kidegoaren senide eta adiskideoi. Bisiten berrabiar-



Carlos Delgado, Wikimedia commons.

tzean, adibidez, gure senide preso urrundutako herrialdean egonik, bisita eta familia eskubidea erauzten digute errotik.

Euri asko egin du martxoaren 14tik hona. Orduz geroztik, ez bisitarik, ez besarkada eta muxurik. ‘Normaltasun berria’ izendatu duten normalitate mugatua espetxetara iristeko bide luze eta astuna espero dugu. Azken kezka baita gobernu eta botere instituzioentzako preso diren pertsonen eskubi-deak errespetatu eta bermatzea.

Hala ere, ez dugu bidezidorrik nahi gure senide presoak Andaluziako edo La Santéko espetxean ikusi ahal izateko. Guk konponbidea nahi dugu. Integrala, zabala eta berehalakoa. Egunak iga-rotzen doaz, ahitutako gure gorputzetan tentsio eta kilometroak gehituz doaz, eta hemen ez dugu hurbileko helmugarik irudikatzen.

Euskal Herriko gizartearengan dugu konfiantza. Kaleak gure aldarriz betetzen amaitu dugu maia-tzaren azken astea eta, orain, gizarte berraktiba-tu eta lanean jartzeko unea iritsi da. Presa dugu, bada garaia azken ostiraletan aireratzen ditugun aldarriak errealitate bilakatzeko. Ez dugu bizitza gehiagorik bidean edo zelda barruan utzi nahi. Iraganean deklinatzeko gogoa eta unea dugu.

Senideak elkarte zena eta egun Etxerat elkarte duguna iraungitze-data batekin jaio ziren. Be-raien ibilbidea amaitutzat ematea albiste pozgarri izango da, iristen denean. Euskal preso eta iheslari politikorik gabeko agertoki berri batean egongo ga-relako eta sufritzeari utzi diogulako. Bada, goazen hori lortzera.

“Estatu mailan,
‘historikotzat’ jo daitekeen
adierazpena izenpetu zuten
maiatza hasieran 9 alderdi
politikok.”



DOSIERRA:

D₁ ”

elkarrizketa:

AIZPEA OTAEGI MITXELENA
“Zenbat eta herrigintza
tenkatzaileagoa
orduan eta politika hobeak”

D₂ *

sinadura:

ISIDRO ESNAOLA.
Por una intervención
activa del Estado
en la economía

D₃ ”

sinadura:

MIKEL OTERO
Zaldibar, zabortegiak
eta ekonomia zirkularra

KRISIARI AURRERE EGITEKO
POLITIKA PUBLIKOAK


“Zenbat eta herrigintza tenkatzaileagoa, orduan eta politika hobeak”

Elkarrizketa:
Beñat Irasuegi Ibarra eta
Erik Gartzia Egaña, herrikideak.

ARGAZKIAK: Foku

**“EH Bilduren militantziak
instituzioekiko duen distantzia
handiagoa da herrigintzakoek
—siglaz gaindikoek— dutena baino”**

AIZPEA OTAEGI MITXELENA **elkarrizketa**



D₁

2019ko ekainetik da Aizpea Otaegi Mitxelena Erreterria/Oreretako alkatea. Julen Mendozari hartu dio lekukoa, zortzi urteko ibilbide aberatsari jarraipena emateko asmotan. EH Bilduren udalgintza egiteko moduan, erreparatzeko moduko eredua ezarri du Erreterria/Oreretak, udalgintza herrigilea garatzeko funtsezko gakoak emanez. Udala eta herri eragileak hartu emanean, ez beti erraz, bakoitza dagokion arduratik, posible denaren mugak zabaltzeko xedearekin, herritarrek orain dituzten beharrak asetuz. Beñat Irasuegik gertutik jarraitu du bederatzi urte hauetako ibilbidea. Hau, beraz, sakoneko ezagutzatik egindako bi kideren arteko elkarrizketa da.

D₁ ”

Orereta/Erreterria bezalako herri konplexu batean alkategai izateko eskaintza onartu zenuen. Aurretik zortzi urteko eraldaketa prozesu batean zegoen udalerrria. Zergatik eman zenuen baiezkhoa?

Bi arrazoi nagusi egon ziren. Alde batetik, aitortza bat egon zen; nirea bezalako profil bat, ezker abertzaleari modu heretsian lotuta ez dagoena, nahiz eta inguruko pertsona bat izan nintekeen, intzidentzia politikoan, edo harreman afektibo-sozialean. Ez daukat profil klasiko bat. Nirea bezalako profil batekin baiezkhoa ematea iruditzen zitzaidan bazela babes handi bat ematea, zortzi urteetako lanari jarraipena emateko. Uste dut bazegokidala ardura hori; ez hainbeste neuri, baizik eta nirea bezalako profil bati.

Beste argudioa erantzukizunez bizi izan nuen: emakume bezala, baietz esatea tokatzen dela, bestela aldarrikatzen dugun hori lortzea oso zaila delako. Emakumeak erabakitzeke tokietan egotea, politika egiteko beste

modu batzuk aurrera eramatea, agenda feminista txertatzea eta emakumeei ikusgarritasuna ematea.

Erabakia plano instituzionale-ra pasatzea zen, baina herrian egindako eraldaketarako bidean lotura izan duzu, batzuetan argiagoa, bestetan zeharkakoagoa. Zein izan da zure parte hartzea herrigintzan eta nola ikusi duzu, bertatik, egindako bidea? Agian bide hori asko lotzen da udalgintzarekin...

Oso lotuta eta oso konprometitu sentitu naiz eraldaketa bide horrekin, baina ez sigla batzuetatik, baizik eta esparru jakinetatik. Instituzioaren eta komunitatearen arteko lankidetzak duen potentzialitatean asko sinisten dut, komunitatea zeren baitan artikulatzen den da gakoa.

Sentsazioa da —oraindik ere badut— gure herrian behintzat oso ezberdina dela EH Bilduko militantzian egon eta herrigintzan egotea. EH Bilduren militantziak instituzioekiko



duen distantzia handiagoa da herrigintzakoek —siglaz gaindikoek— dutena baino. Iruditzen zait kokreazioa eta lankidetzaren handiagoa dela arloz arloka sortuta dauden harremanetan, EH Bildurekin berarekin baino. Kuriosoa den disonantzia bat dirudi —eta agian horrela behar du—. Sentitu dut, zortzi urte horietan, parte hartu dudaren esparruetan, udal-politiketan eragiteko ahalmena handiago izan dudala, aukerak zeudelako eta eragiteko espazioak zabaltzen zirelako. Orain, alkatetzatik, EH Bildurekin harremanean, sentsazio hori berresten dut, ez dagoela halako kokreaziorik. Parte-hartzea oso egituratuta egotearen ondorio izan daiteke eta beraz, hala denean, birpentsatu beharra dago zein espazio eta zein toki eman siglen baitako militantziari.

“Instituzioak baliabideak jarriko ditu, baina esan iezadazu zer garatuko zenukeen, zer egin dezakegun elkarrekin”





Bideetako bat izan al daiteke EH Bildu bera herrigintzen logikan gehiago sartzea? Hau da, alderdien jokoan bainoago, herriak dituen beharretan indarra jartzea.

Ikusi behar da jendeak bere identitateak eraikitzeko zer behar duen. Batzuek behar dute lotura hori, siglei lotutakoa, eta espazio bat non aitortuko zaizun identitate hori. Beste batzuegan, aldiz, siglei lotutako identitateak pisu txikiagoa du, eta herrigintzaren logikan hobeto mugitzen dira, hortik eraikitzen duten eurena. Bigarrena, seguru aski, lotuago dago egungo logikekin, mugikortasuna erraz dezake. EH Bilduk ezkerreko logiken hezurdura edo artikulazioa izan beharko luke. Beste kontu bat da hori nola egiten den.

Identitateena aipatu duzunez, gogoratu naiz Herri Bizia dinamikarekin. Prozesu klabeetako bat izan da Orereta/Errenteriarekin atxikimendu berri bat sortzea. Identitate eraketa horri zein garrantzia ematen diozu? Jarraitu behar al du prozesuak?

Komunitate baten parte izatearen pertinenzia sentimenduak sekulako indarra dauka. Horrek ahalbidetuko du zuk momentu batean konpromiso bat hartzea, behar baten aurrean urrats bat aurrera egitea. Pertinenzia hori klabea da.

Zuk ez baduzu loturarik inguratzen zaituen jendearekin, zure interesen arabera bakarrik mugituko zara, ez kolektiboan. Pertinenzia hori lantzen ez baldin bada, berez oso hauskorra den ehuna puska daiteke. Pertinenzia, harrotasuna, identifikazioa... bakoitzak duen lotura hori izan behar du, komunitate batekin.

Hori nola eraikitzen den zaila da. Herri guztiek nahiko lukete pertinenzia hori landu ahal

izatea. Jendeari aukera eman behar zaio parte hartzeko, bere inizatibak aurkezteko, erantzule eginaraztea... Herri honen alde zerbait egin nahi duzula? Badaukazu aukera: egin proposamena eta hortik tiraka saiatuko gara eraikitzen. Instituzioak baliabideak jarriko ditu, baina esaniezadazu zer garatuko zenukeen, zer egin dezakegun elkarrekin. Niretzako, politika egiteko moduetan klabea da, eta da pertinentzia eta lotura sortzeko modu oso potentea.

Adibide bat izan daiteke Orereta/Erreterian zaintza komunitarioko sarea nola osatu dugun. Zerk eraman ditu 500 pertsona bertan izena ematera? Badaukate bestearekiko sentsibilitatea, sentitzen dute elkartasuna, baina, horrez gain, sentitzen direla komunitate bati eusteko nahiarekin eta aukera zabalitzen denean heldu egiten zaio eskaintzari.

Orube bat sortzen da ekarpen indibiduala kolektibo bihurtzeko.

Bai. Eta, gainera, hori ongi ateratzen dela ikustean, norbera sentitzen da lorpen kolektibo baten partaide eta horrek berak, dinamika hori elikatzen du

Mertxe Aizpuruak Madrilgo Kongresuan Erreterria aipatu zuenean jende asko sentitu zen harro egindako lanaz. COVID-19ak eraginda, azken asteetan ohi baino harreman txikiagoa izan dut herritarrekin, baina hainbatekin egon naiz. Askok esan didate oso harro sentitu direla Erreterriaren izena entzutearekin. Pertinentzia horretan gainera, herriari buruzko errelatoa aldatu da. Eta errelato positibo batean zure burua kokatzea errazagoa da, asebetetzen zaitu. Biak ala biak asko landu dira azken urteetan egindako bidean. **Harago joanda, Orereta/Erren-**

teria Gipuzkoako herri pobretuenetakoa da, baina komunitate kohesioa oso indartsua du, eta adibide kontrahegemonikoa erakusten die indibidualizazio prozesuei, autoritarismoei galga jarritz.

Pertsonak erdigunean jartzea eta kolektibotasun, komunitate baten parte izateko aukera izatea horiek dira heldulekurik handienak. Jendeak beldur handia dio ziurgabetasunari; eta guk konfiantza erein behar dugu. Gurasoen belaunalditik gurera aldaketa handia dago, eta guretik hurrengora, sekulako saltoa.

Kohesiorako komunitate harremanez gain, baliabide materialak ere garrantzitsuak dira, uztartu behar direnak biak. Hor ere badago lan bat. Antipolitika eta autoritarismoari aurre egiteko nola bilatu behar da bien arteko oreka? Udalak eman behar al du ziurtasun materiala eta herrigintzak gehiago harremanei lotutakoa?

Estrategia bikoitza izan daiteke. Instituzioek sustatu dezakete komunitatea, baina herritarrek ere eraikitzen dute komunitatea eguneroko bizitzan. Krisi honetan sustatu ditugu komunitatea indartzeko hainbat ekimen, baina jende asko bere kasa, bere ekimenez aritu da: elkarren zaintzan mila keinu egon dira, batzuk antolatuak besteak ez, batzuk instituzioak eraginda eta beste batzuk herri-ekimenez garatu direnak. Komunitatea lantzeko modua ez da bakarra, nahiz eta nabarmen, udalak ardura handia duen giro bat, balio-marko bat, logika bat eragiten.

Alde materialari dagokienez, instituzioek duten ardura saihestezina da, besteak beste, ziurgabetasun materiala oso lotuta dagoelako oinarritzko eskubideekin. Baina baliabide materialen atalean badago beste eremu bat

ere garrantzitsua dena, hain juxtu, baldintzak sortzea herri-tarrek baliabide horiek euren kasa izan ditzaten. Ahalduz ere, eremu sozio-ekonomikoan, garrantzitsua da.

Sortutako 'bide eder hau', neurri batean, ahula da, edozein gauza hasi berri bezala. Kezkatzen al zaitu COVID-19ak azeleratu duen krisiak prozesuan eragina izango duen?

Ez du zertan. Bi hilabete hauek eman digute aukera erakusteko zein diren gure benetako lehentasunak. Egoera zenbat eta zailagoa izan, orduan eta garbiago izan behar da zer blindatu behar den, eta mezuak herritarrentzako askoz ere garbiagoak dira. Zeuden ezberdintasunak azaleratu, zaurgarritasunak ageriago jarri ditu egoerak. Aurrerantzean baliabide gutxiago egongo da, eta gure hautuak askoz garbiagoak izango dira, sustatu nahi dugun herri-ereduari dagokionez

Aukera bat izan daiteke, eredu-talka esplizitatzeko. Horrek ez du esan nahi egoera okerragotan hobeto gaudenik, baizik eta txarrenari onena atera behar diogula.

Zein da, modu sinple batean azalduta, Orereta/Erreterriako ereduaren muina?

Hemen bizi garenak komunitate bakarra osatzen dugula abiapuntu gisa hartuta, pertsonen beharrak erdigunean jartzea, eta agerian gelditzen zaizkigun ezberdintasun horietan guztietan esku-hartzea. Gutxien dutenentzako edo zailen dutenentzako politikak eraikitzea da guztion ongizatea, haiei begira lan egitea.

Beste muinetako bat da politika horiek egiteko modua, herritarrekin lan egitea. Eta hirugarren



“Pertenentzia hori lantzen ez baldin bada, oso hauskorra izan daitekeen ehuna puska daiteke”

bat, nahi baldin bada, transbertsalitate politikoan adostasunak lortzea, ahal baldin bada.

Batzuetan, herrigintzatik zer-bait esaten da eta udalgintzak erantzuten du ezin dela, muga administratiboak daudela-ko. Muga horiek gainditzeko zein dinamika dialektiko izan beharko genituzke?

Hona iritsi baino lehen ere ez nituen batere gustuko ‘hori ezin da egin’ edo ‘hori ez dugu inoiz egin’ esaldiak.

Uste dut herrigintzak gu tentsionatu behar gaituela, instituzioan gaudenontzako sekulako tresna da. Zenbat eta herrigintza tentsionatzaileago, orduan eta politika hobeak. Hori bai, ez dadila soka puskatu. Gauza asko lor daitezke udal barruan

helburuak garbi ditugunean, eta parametro logikoetan kokatzeko gai garenean. Udal-barruko dialektika ere garrantzitsua da eta hor ere denbora inbertitu beharra dago.

Kontradikzioan eragin behar-rean baino, aliantza estrategiko bat aldeztu aurretik egitea ez litzake hobe izango?

Herrian hamar bat kontseilu dauzkagu. Bakoitza mundu bat da, baina batzuk oso potenteak dira. Elkarlanerako diseinututako gunehorietan islatzen da tentsionamenduarena, eta gehienetan oso emankorra da. Eragileek presioa egiten dute, eta niri politikoki oso baliagarria zait gauzak aurrera ateratzeko. Konfrontazioa elkarlaneko logika batean eman daiteke, lehen

esaten nuen bezala, elkarlanerako espazio hori guztiontzat oso garrantzitsua eta emankorra bada eta soka puskatu nahi ez badugu.

Berdintasunerako Kontseilua, adibidez, niretzako eredugarria da. Berdintasunerako politiketan ibilbide polita egiten ari da, besteak beste, Kontseilua oso tresna eraginkorra delako. Gauza pila bat lortu ditu, eta ikusgarritasun handia lortu dute, sailak berak bakarrik egitea oso zaila liratekeena.

Etorkizunera begira jarriko gara. Alkateari pragmatismoa eskatzen zaio, baina utopiarri buruz galdetuko dizut. Herri-tar guztien etorkizuna hobetu nahi izatea, eta bizi proiektuak egin nahi izatea, berdintasunean, izan daiteke alkate baten nahia eta eginbeharra. Marina Garcesen zalea zarenez, ‘posible denaren markoa’ haustearena nahitik beharrera pasatu al da?

Ante este fracaso recurrente de la izquierda, toca preguntarse las causas por las que no ocurre. Podrían ser muchas. Una de ellas es que hay una gran estratificación social. La jerarquía de humanidades que el sistema capitalista en este momento de su desarrollo histórico, en el neoliberalismo, ha impuesto, es muy amplia. Y las personas están categorizadas dentro de esta jerarquía dependiendo de los cuerpos y los territorios que habitan. Cuando me refiero a cuerpo me refiero a género y étnico racial; cuando me refiero a territorio me refiero a si habitan territorios de occidente y centro, o si habita en las periferias o lo que llamamos el sur global. Hay que ser sincero y aceptar que existe esta jerarquía y que no todos somos iguales, no con el ánimo de dividir, sino con el ánimo de que la consigna que llamemos a la unidad se base, no tanto en lo que deseamos sino en una realidad, en lo que hay.

Esto tiene relación con la pregunta respondida anteriormente de que muchas veces la izquierda se dedica más a dibujar el deseo que la realidad actual. La realidad no sólo es que estamos fragmentados, sino que además el bien vivir de las personas más favorecidas de esta jerarquía de las humanidades pasa directamente por el mal vivir de otras. Debemos tener en cuanto que para que en Alemania se desayune *muesli* con *arándanos* todas las mañanas mujeres marroquíes de los sitios rurales más pobres trabajen recogiendo

arándanos por 7 euros el jornal. Y esto es una realidad. ¿Con esto damos a entender que queremos fragmentar y dividir la clase? No, queremos hacer un análisis exhaustivo del porqué no ocurre de la forma que pretendemos. Debemos tener en cuenta que va a haber límites a la hora de llamar a esa unidad, porque va a ser muy difícil que las personas que trabajan en situaciones de semiexclavitud en las minas del coltán del Congo nos vean como aliados a gente grabando ahora mismo un audio con un móvil en la mano [Aquí Pastora hace referencia al modo en que respondió a las preguntas de Erria]. Entonces la cuestión de género, de raza y de colonialidad es muy necesaria a la hora de plantear una lucha común, no tanto para el debate filosófico.

“La hipótesis del libro es precisamente llamar la atención a lo que llamamos la izquierda institucional, occidental y blanca, de que quizás gran parte del fracaso de la izquierda es porque los discursos y prácticas políticas emancipatorias se están narrando desde un occidente blanco, sin tener en cuenta el potencial emancipatorio de los discursos, las prácticas vitales o las epistemologías de las comunidades subalternas.”

“(La historia del pueblo gitano) es una historia de persecución, de exclusión social, pero también es una historia de como la inteligencia colectiva de una comunidad encuentra vías de fuga y de resistencia a esta imposición.”

Acabas de publicar el libro *El pueblo gitano contra el sistema-mundo. Reflexiones desde una militancia feminista y anticapitalista* (Akal, 2020), donde suponemos que recoges también algunos de los debates y problemas de la izquierda que venimos analizando durante la entrevista. ¿Qué reflexiones concretas has querido poner encima de la mesa en el libro?
El libro habla sobre el feminismo gitano, pero también de muchas más cosas. La hipótesis del libro es precisamente llamar la atención a lo que llamamos la izquierda institucional, occidental y blanca, de que quizás gran parte del fracaso de la izquierda es porque los discursos y prácticas políticas emancipatorias

se están narrando desde un occidente blanco, sin tener en cuenta el potencial emancipatorio de los discursos, las prácticas vitales o las epistemologías de las comunidades subalternas. Desde esta hipótesis, yo planteo la historia del pueblo gitano en el estado español, no tanto desde una victimización de la comunidad (más bien al contrario), sino deteniéndome en las prácticas de resistencia al modelo capitalista que históricamente ha tenido la comunidad gitana, y cómo estas pudieran servir de referente, puestas en valor para una futura propuesta emancipatoria. En el libro me refiero principalmente a la resistencia histórica que el pueblo gitano ha tenido a trabajar por cuenta ajena y cómo

ha primado formulas de cooperación y mutualismo de base a través de una economía familiar extensa intentándose librar de toda esta normativa anti-gitana que durante siglos se ha impuesto con violencia para doblegar los cuerpos de las personas gitanas: trabajar a cambio de renta, principalmente para los dueños de la tierra y de los medios de producción. Es una historia de persecución, de exclusión social, pero también es una historia de como la inteligencia colectiva de una comunidad encuentra vías de fuga y de resistencia a esta imposición. De estas cosas intento hablar en el libro.



eux
s

ce

x

te-

r de

re

s qui

e mèn

s, elles

ir les

ai droit

ois

mais

e somme

e mes

0 \$ par

é au moins

mois précé-

ion et a
ces, une à une,
de l'Occident dans
effrénée aux profits à tout

Il aura fallu une crise sanitaire
mondiale pour constater la fra-
gilité et notre hyperdépendance

u continent du Soleil-Levant. Et
mais, nous voilà, peut-être, pour
pas dire enfin, au bout du
t de la mondialisation, à
rémité de ce broyeur d'au-
nies et de différences, de

arité : NON, tout n'est pas
ble et interchangeable
ète, pas même le riz
s les champs de

di: pour enlever l

tar
à
nat
en l

env
vices que no
jourd'hui sa
main, ave
par le m
tion.

Justin Trudeau, Canadako Lehen Ministroa. Canada
koronabirusaren aurrean herritarrak babesteko neurri
sendoak hartu dituen Estatuetakoko bat da.
Arg: Charles Deluvio / Unplash

GOBERNUGINTZA DESBERDIN BATERAKO ABIAPUNTUA?



Elena Beloki. *Iratzar Fundazioko kidea.*

Covid-19 izurritea XXI. mendean gertatu diren beste krisi ekonomiko, biosozial eta klimatikoari erantsi zaie eta ageriago utzi ditu bizi ditugun garai konplexu eta nahasiak. Koronabirusak jadanik munduko jendartean ematen ari ziren aldaketetan - lan eta kapitalaren arteko harremanen aldaketa, segurtasunik gabeko kulturaren orokortzea, ezberdintasunen handitzea...- inflexio puntu bat izan da, eta gure bizitzeko, kontsumitzeko eta erlazionatzeko eredua eraldatu du.

Hitz gutxitan esanda, azken zirrikituraino espazio eta egitura publikoak pribatizatu eta, inplizituki, publikazioa ukatzen zuen globalizazioa ikutua geratu da; beldur eta krisi garaian, logika pribatizatzailea pertsonen behar eta babesarekin bateraezina delako.

Garai bortitz eta nahasi hauetan pribatizazioaren aldeko apustua egin duen estatu berberak, gaur bere eskuhartze sozial eta ekonomikoren protagonismoa azkartzen ari du.

Estatuaren berretorrera

Ziurgabetasunez beteriko garai hauetan, estatua erdigunean kokatu da, estatuaren gainean ezartzen zen globalizazioaren instituzionalitatea, ordea, indargabetu da. Zaila da esatea fenomeno hauen norabidea zein izango den. Zalantzak eta kezak ditugun arren, ideia batez konbentziturik gaude: une hau aproposa izan daiteke gobernantza eredu diferenteaz hausnartu eta hortik abiatzeko.

Covid-19aren osasun krisiari aurre egiteko, estatuek erabakitako konfinamendu neurriek jadanik agertzen ari zen hondamen ekonomikoa eta soziala areagotu dituzte, eta, era berean, A. Demirovickek “paniko egoera” deitzen duena lau haizetara hedatu dute. Kuriosoa dirudien arren, izurrite globala izan bada ere, horren aurreko erantzuna ez da bizitza antolatzeke diseinaturiko arkitektura global horren eskutik etorri. Organismo txiki batek neoliberalismoak XX. mendeko 70 hamarkadatik bultzatu duen globalizazioa astindu du eta horrek sortu dituen ezberdintasunak ikusgarri bilakatzeaz harago, estatu-nazioen babesa eta zaintza mekanismoak nola ahuldu eta batzuetan hustu dituen nabarmendu du. Hitz gutxitan esanda, azken zirrikituraino espazio eta egitura publikoak pribatizatu eta, inplizituki, pu-

blifikazioa ukatzen zuen globalizazioa ikutua geratu da; beldur eta krisi garaian, logika pribatizatzailea pertsonen behar eta babesarekin bateraezina delako. Esan dezakegu, beraz, finantza merkatuen, hornikuntza kateen, masa kulturaren eta sareen globalizazio mota honek ez duela espero bezala funtzionatu.

Egoera horren aurrean estatua heriotza eta krisi ekonomiko eta sozialaren aurrean nukleo bateratzailea izan da; aparatu administratibo eta gizarte zibil politizatu eta antolatuta gisa, babes kolektiboaren eskaeraren aurrean erantzunak eman dituen mekanismo bakarra izan da. Hain zuzen, beste katastrofe sozial eta ekonomikoetan gertatu den bezala, oraingoan ere, berriz, Covid-19 izurritearen aurrean, estatua, eta ez merkatua, herritarrak babesteko gaitasun antolatzailea eta legitimitate soziala duen bakartzat agertu da.

Covid-19aren aurrean, estatua eta gizarteko kideen arteko lotura formatiboa birsortu da eta, era berean, ongizate kolektiboa segurtu dezakeen bakarra den heinean, jendeak estatua-rengana jo du babes bila: estatu minimoa eta merkatu librea aldarrikatzen zuten horiek barne. Hori dela eta, Estatuak konfinamendu erabakiak hartu dituztenean, mugak itxi dituztenean, isolamendu neurriak apli-

katu ahal izan dituztenean edo politika publikoak ahalbideratu dituztenean, jendeak onartu egin ditu. Estatuaren boterea, hortaz, agerian geratu da, bai eta estatu egiturak ez ditugunon ahulezia, jakina. Aurreko errealitate horrek egituren eta publikotasunaren kontzeptuei buruz pentsatzeko beharra eskatzen digu.

Beraz, garai bortitz eta nahasi hauetan pribatizazioaren aldeko apustua egin duen estatu berberak, gaur bere eskuhartze sozial eta ekonomikoren protagonismoa azkartzen ari du. Bide horretan, adibidez, NDFren iturrien arabera, estatu askok – Alemania, Portugal, Australia, Zelanda Berria, Estatu Batuak familia, enpresa eta sektore kaltetuei laguntzak eta erantzun fiskal azkarra bideratzeko neurriak hartu dituzte. Batz bestek, Barne Produktu Gordinaren % 5 eta %15 bitarteko kantitateaz hitz egiten ari gara. Baina zer esan nahi du horrek; herritarrak babesten dituen estatua geratzeko itzuli dela? Alemania edo Estatu Batuek euren sinesmen neoliberalari muzin egingo diotela? Estatu hauentzako hain erreza izango ote da menderakuntza teknoekonomikoak alboratzea barne merkatuari eta ekonomia-ri begiratzeko? Estatuak ematen ari diren dirulaguntzak populazioaren eskubideen eskuratzea suposatzen du, edo 2008ko krisia-



Never give up, even when the
enemy seems stronger than you.
Arg: Jose M. / Unspalsh

ren aurrean ateratako ikasgaien parte al dira?

Estatuari buruzko eztabaida irekia dago, eta zantzu guztien arabera estatuaren indartzeak eta bizi ditugun ziurgabetasun garaiek berriro tentsioen area-gotzea ekarriko dute: bai estatuaren beraren barruan —Poulantzasen ideiak gaurkotasun handikoak dira arlo horretan—, eta zer esanik ez nazioarteko esferan eta estatu egiturak izan nahi ditugun nazioetan.

Atal honekin bukatzeko, beraz, esan dezakegu Estatu eta gobernagintza diferenteaz hausnartzeko garai aproposak bizi ditugula.

Hainbat agertoki posible

Eta orain zer? Arestian esaten genuenez, estatuak bere boterea erakutsi du, baina zenbat denboraz? Aipatzen genituen estatu barruko tentsioek ze norabide hartuko dute? Nola banatuko da errenta eta aberastasuna, ze borrokek gidatuko dute logika zaharren egituren barruko botereen monopolioa? Posible ote da instituzionalizazio post-liberal bat abiatzea? Eta estatua gizartea bada ere, zein izango da jendartearen inplikazioa?

Berriro Poulantzas berreskuratzeko, estatuak klase sozialen arteko indar korrelazioaren kondentsazioa dela esanez. Ideia berari jarraituz, Bob Jessopen eskutik esango dugu estatua erlazio sozial konplexu bat dela, eta erlazio horretan egiturak eta aktoreen ekintzak, jardura funtsezkoak direla estatuaren bilakaerarako. Horrek esan nahi duena ondokoa da: jendarte kapitalista eta patriarkal batean, adibidez, estatuak interes kapitalista eta patriarkalak lehenetsiko dituela publikoak eta berdintasunen aldekoak baino. Baina horrek ez du esan nahi estatua zerbait determinatua

denik, edo zerbait konpaktu eta fisurarik gabekoa denik, ez eta aktoreen ekintzek estatuaren norabidea baldintzatu ez dezaketarik ere. Izan ere, estatu kapitalistak, esaterako, hezkuntza pribatizatzeko erabakia hartu dezake edo pandemia honetan ikusi dugun bezala, hainbat zerbitzu herri-tarren eskura jar ditzake. Estatu barruko eta kanpoko indar harremanek estatuaren norabidea baterakoa edo besterakoa izatea ahalbideratuko dute.

Esandakoaren arabera, garai hauetan hainbat agertoki aurreikus daiteke. Batetik, Alvaro Garcia Linerak “neoestatismo perbertituari” buruzko arriskuaz hitz egiten du. Estatu mota horrek bi ezaugarri nagusi lituzke, ekonomilariak “keynesianismo inbertitua” deitzen dutena. Estatuaren eskuhartzearen helburua ez litzateke jendartea lagundu, babestu eta bizi baldintza duinak ematea, enpresa handiak laguntzea baizik, ondasun publikoak era maltzurrian erabiliz. 2008an aurrekoaren adibide batzuk ezagutu genituen. Covid garaian, ordea, kasurik esanguratsuenak Trumpen administrazioak bideraturiko bi biloi dolarren partetik handiena konpainia pribatuei zuzentzea izan da. Pentsa daitekeenez ondasun publikoen erabilpen klasista horrek kontrol eta disziplina sozialaren beharra izango du. Eta aurrekotik dator bigarren ezaugarria; big dataren totalitarismoa, edo Giorgio Agambenek biopolitika deitzen duena. Alegia, Estatuak disidentzia eta herritar “arriskutsuen” kontentziorako teknologiaren erabilpena eta kontrola behar izateaz ari gara. AEBen adibidearekin batera, Brasil eta Bolivia adibide interesgarriak izan daitezke estatu mota horren ezaugarriak ikusteko.

Bigarren agertokia estatu keynesiarrarena da. Ez diru-

Estatuak bere boterea erakutsi du, baina zenbat denboraz? Aipatzen genituen estatu barruko tentsioek ze norabide hartuko dute? Nola banatuko da errenta eta aberastasuna, ze borrokek gidatuko dute logika zaharren egituren barruko botereen monopolioa? Posible ote da instituzionalizazio post-liberal bat abiatzea?

Alvaro Garcia Linerak “neoestatismo perbertituari” buruzko arriskuaz hitz egiten du. Estatu mota horrek bi ezaugarri nagusi lituzke, ekonomilariak “keynesianismo inbertitua” deitzen dutena.



Estatu Batuetan Donald Trump presidenteak pandemiaren ardura beste eragileei leporatu die etengabe, birusaren hedapenari aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak ukatuz. Kutsatu kopuruaren tendentziak gorantz jarraitzen du. Arg: Jose M. / Unspalsh

di, ordea, estatu keynesianoa edo gerra ondorengo Ongizate Estatua itzuliko denik, besteak beste, estatu mota hori definitu zuena kapitala, estatua eta langileriaren arteko itun sozialean -sexualean- oinarritu zelako, eta postfordismoak hiru esparruen arteko indar harreman horiek ahuldu eta modifikatu dituelako, baina batez ere, langileriaren fragmentazioa gauzatu zuen orduko estatuaren ezaugarriak bideragaitza egiten dutelako horren itzulera.

Hirugarren agertoki posiblea Boaventura de Sousa Santosen

instituzionalizazio berria litzateke: prozesu politiko konstituziogile bat behar duena, ordezkaritza bidezko demokraziaren formak eta demokrazia parte hartzaile erabakitzailearenak artikulatuko dituen. Herritarrek parte hartu beharko lukete horretan, ohiko ordezkaritza formuletatik at, erabaki politikoetan eragiteko, erabakiak hartzen laguntzeko, eta horiek kontrolatzeko. Burujabetzaren ohiko hiru organoekin batera, hortaz, estatuaren politikekiko herritarren kontrol demokratikoa bermatuko lukeen organoa

ere beharko litzateke. Agertoki horretan garapen eredua aldatu beharko litzateke ikuspegi ekosoziala eta feminista ardatz izanik.

Hiru agertoki horiek gaur eguneko aukeren abanikoa marrazten edo diseinatzen laguntzen dute. Ez dira bakarrak, baina joera nagusiak zehazten dituzte, dauden aukerak polarizatuz: demokrazia gehiago ala autoritarismo gehiago. Eta ez dirudi tarteko jarretarako esparrua dagoenik, jarrera nagusiez ari gara, ez hauek sor ditzaketen praktika ezberdinez.



Jacinda Ardern Zeelanda Berriko Lehen Ministroa. Modu arrakastatsuan egin dio aurre koronabirusari, pandemia ezabatutzat emanez Ozeaniako herrialdean.
Arg: Governor General Of New Zealand, Wikimedia Commons

Iparrorratza argi izan behar dugu. Azken finean, demokrazia erradikalizatzeaz ari gara, behetik sortu nahi dugun beste hegemonia mota batez ari gara: eraikuntza prozesu hau jendearen inplikazioarekin soilik egin daiteke.

Ez al digute jakintza eta praktikek erakutsi ze beharrezkoa den bizitzak, gorputzak eta lurraldeak erdian jartzeko botere eskala desberdinen arteko interdependentzia logika artikulatzea?

Gobernugintza diferente baterantz?

Gauzak horrela, izurriteak erakutsi digu estatu egiturarik gabe ezin dugula erabakirik hartu eta indar zentripetuen menpe geratzen garela: Madrilgo birzentralizazio jarrerak, gure herrien arteko mugen ezarpenak edota autonomiaren ahulezia eta zentroarekiko menpekotasun horren adibide garbiak dira. Estatu egiturak izan nahi baditugu gaitasun politikoa (burujabetza materiala), erabakimen gune bat eta eskumen ziur eta erabatekoak (instituzioak) beharko ditugu, ongizate kolektiboa sortu eta birsortzeko, eta munduan toki propioa izateko.

Bide horretan, hauteskunderen ondorioz lor ditzakegun espazio instituzionalak beharrezkoak baditugu ere, denbora berean

mobilizatzeko gaitasuna duten beste bloke eta segmentu sozialetan eragiteko beharra dugu. Izan ere, Garcia Linerak dioen bezala, garai ziurgabe eta nahasi hauetan jendartearen artean gaur arteko sinesmenak kuestionatzen direla, jendartearen irekitasun kolektiboa handiagoa izanik, eta, beraz, beste ideia batzuetara hurbiltzeko jarrera zabaldu egin dela. Irekitasun hori, ordea, ez dirudi luzaz mantenduko dela. Eta kontuan izan behar da, jakina, disponibilitate horrek irekitzen dituen esparruak lehiatzeko oso indar ezberdinak egongo garela.

Beraz, hori ahaztu gabe, iparrorratza argi izan behar dugu. Azken finean, demokrazia erradikalizatzeaz ari gara, behetik sortu nahi dugun beste hegemonia mota batez ari gara:

eraikuntza prozesu hau jendearen inplikazioarekin soilik egin daiteke. Eta posizio gerra honek ez al digu erresilientzia eta praktika komunitarioak erakutsi egitura publiko eta komunitarioaren arteko artikulazioaren beharra? Ez al digute jakintza eta praktikek erakutsi ze beharrezkoa den bizitzak, gorputzak eta lurraldeak erdian jartzeko botere eskala desberdinen arteko interdependentzia logika artikulatzea?

ZULO B

Espazioan dauden gune finituak dira zulo beltzak. Haien grabitate-indarra hain handia denez, ezertxok ere ez die ihes egiten, ezta argiak ere. Zulo beltzekin pareka ditzakegu enpresa eta korporazio boteretsuak, bai erakarpen indarragatik bai opakotasunagatik bai dena xurgatzeko gaitasunagatik. Izan ere, denon dirua, jendearen izerdia eta bizitzak irensteko gaitasunq dute.

Euskal Herrian ez gaude salbu. Enpresa handiek etekin milioiodunak eskuratzen jarraitzen dute, langileen prekarizazioa eta soldaten arteko arrakalak areagotzen diren honetan. Covid-19aren ondorioz bizi dugun krisialdi ekonomiko honetan, eskuzabal jokatu beharko lukete bai enpresa horiek bai horien bidez milioiak poltsikoratzen dituzten pertsonak. Zulo beltz izateari utz diezaiotela lortu behar dugu, Euskal Herriko zero ginean izar berriak piztu nahi baditugu.

Enpresarik boteretsuenek burtsan kotizatu ohi dute. Ibex 35aren kluba likidezia handiena duten Estatu-ko 35 enpresek osatzen dute, eta horietatik sei dira Hego Euskal Herrikoak. Guztira, Espainiako estatuan 125ek burtsan dihardute, eta horietako hogeitasei euskal enpresak dira.

BBVA

Urteko lehen hiruhilekoan galera milioiodunak izan ditu Bilboko banketxeak, baina urtea irabaziekin amaituko dutela iragarri zuen Carlos Torres presidentek. 1.792 milioi euroko galerak izan dituzte, alde batetik AEBetan duten filialaren merkataritza-funtse saneatzeko eta 1.460 milioi probisiotarako gorde baitituzte pandemiak ekar litzakeen galerak aurreikusirik. "2008ko krisitik BBVAk inoiz ez du galerarik izan. Ez dugu espero hori aldatuko denik. Jakinezkoa, 2020 urtearen amaieran irabaziak izango ditugu".

Bien bitartean, EAU presio egiten ari zaio Espainiako Gobernuari BBVAren eta Bankiaren arteko fusioa lehenbailehen egin dadin. Hori bai, BBVAk argi du Bankia irenstea ia doan izan beharko dela, Santanderrek Popular xurgatu zuenean bezala. Operazioa gauzatzeko balitz, Jose Antonio Goirigolzarrik Bilboko banketxera itzultzeko aukera izango luke eta neguritarren klana indartuko litzateke. Bizkaiko banketxeak, osotara, 19.243 milioi euroko balioa du burtsan.



IBERDROLA

2020ko lehen hiruhilekoan 968 milioi euroko irabaziak izan ditu Iberdrolak, eta hori Covid-19aren eraginez gerta litezkeen ordainketa ezak aurreikusirik beste 95,5 milioi probisiotarako gorde dituela kontuan hartuta.

Urte hasiera honetan etekina, batez ere, lortu du Siemens Gamesa enpresan zeukan %8ko partaidetza saltzeagatik. Izan ere, Siemens talde alemaniarra 1.099,5 milioi euroan saltzean, 484,5ko plusbali eskuratu du Iberdrolak.

Iberdrola enpresak 56.404 milioi euroko balioa du burtsan.

AZKOYEN



CAF

DOMINION

euskaltel

FAES FARMA

Gestamp

E L T Z A K

SIEMENS Gamesa

RENEWABLE ENERGY

Urteko lehen hiruhilekoan Ibex 35ean galerak izan ditu. Iaz epe horretan 29 milioi euroko irabaziak izan bazituen, aurten 165 milioi galdu ditu. Galerak osasun-larrialdiari egotzi dizkio konpainiak, hainbat lan exekutatu ezinda atzeratu baitzailuzkio. Egbera kontuan hartuta, zuhur jokatu nahi du enpresak eta ez du urte amaierako aurreikuspenik kaleratu.

Iberdrolak Gamesaren akzioak saldu ondoren, egun Siemens talde alemaniarrek baino ez du kontrolatzen Gasteizen sortutako taldea.

Viscofan

The casing company

Elikagaientzako bilgarriak egiten dituen enpresa nafar honi krisialdi ekonomikoak ez dio eragin. Urtarritik martxora bitartean 27,4 milioi euroko irabaziak izan ditu, iaz epe beran baino %20,3 gehiago. Salmentetan ere gora egin du. Txinan, Ameriketan eta Europan lantegiak baditu ere, bakar bat bera ere ez dute itxi covid-19aren krisialdian. Larrialdi egoera batean, hornikuntzak areagotu ditu.

Viscofanek 105 milioi euroko irabaziak lortu zituen iaz.



CIE Automotive

Pandemiak autogintza sektorea gogor kolpatu badu ere, CIE Automotiveren etekinak hazi egin dira lehen hiruhilekoan, joan den urteko lehen hiru hilabeteetan lortutakoekin alderatuta. 2019ko martxotik 2020ko martxora 287,6 milioi euroko etekin metatu garbia lortu zuen enpresa bizkaitarrak.

Txarrena pasa dela adierazi dute enpresako arduradunek. Pandemiak utzitako panoramaz mintzatzean, Urtea irabazi milioidunekin amaitzea espero dute.

Egana Garitagitia familia; enpresaren sortzailea, Euskal Herriko 12. fortuna handienetakoa da Forbes aldizkariaren arabera, eta 310 milioi euroko ondarea pilatuta du.

MÁSMÓVIL

Operadoreak 22 milioiko etekin garbiak ditu urtarritik martxora bitartean, iazko irabaziaren parekoa. 2006an Donostian sortu bazen ere, egun Madrillgo Alcobendasen du egoitza. Eratu ondoren, erabatekoa izan da enpresa honen hazkundera eta irabaziak. Banda zabaleko erabiltzaile kopurua etengabe ari da igotzen. 9,2 milioi linea dauzka egun, iaz baino %16 gehiago.



vocento



A large, stylized white letter 'G' is centered on a solid red background. The 'G' has a thick, rounded stroke and a small gap at the top right.

GOMENDIOAK:



Baginen

Euskal Herriko historia
emakumeen bitartez

Cira Crespo & Elena Ciordia

Txalaparta, 2020

Saiakera literario ilustratua



Kobazuloetako margoetan pentsatzen dugunean, nor irudikatzen dugu eskuak zikintzen? Nor Erdi Aroko elizak eraikitzen? Ezagutzen al dugu XVIII. mendeko tabernari emakumezkorik? Zein izan zen lehen inprimatzailea, ba al dakigu frontean kazetari ibilitako norbaiten izena?

Bistan denez, gaur egunean bezala, garaiotan ere baziren emakumeak, eta ez geldi. Nor izan ginen eta zer egin genuen jakitea falta, beraz; hain zuzen galdera horiei erantzun nahi izan diote Cira Crespo historialariak eta Elena Ciordia ilustratzaileak liburu eder honetan.

Historiaurretik abiatu eta gure garaira arte, berrogeita hamar emakume baino gehiago aurkezten dizkigute, norbanakoak eta taldeak, betiere bizirik ez daudenak, bizi direnak beren historia idazten ari baitira oraindik. Haien izenen bitartez, historiari identifikazio bat jartzen diote, irakurlearentzat lagungarri dena; akuarelei esker, berriz, emakumeok presentzia fisikoa hartzen dute, eta garai

jakin batekin lotzen ahal ditugu. Ordena kronologikoan aurkezten zaizkigu horrela baronesak, iheslariak, bertsolariak, lesbianak, kontrabandistak, medikuak, salatuak, artistak, grebalariak, bai eta senide, alaba, alargun eta amak ere.

Kutsu literarioko azterlana da, artxibo lan zorrotzari jarraitu diona. Dibulgaziozko lana izanik, tonu hotzagoa estilo narratiboagoarekin nahasten da, kronika lirikarekin, zer kontatzen den arabera, irakurketa atsegina eginez. Horrela, zenbait emakumeren bizitza ezagutarazte hutsetik harago, historia kolektibo bat eraikitzeko oinarriak jartzen dituzte, Euskal Herriko iruditeria zimenduetatik eraberritzeko asmoz. Hala bedi!

IZURRIA!

Slavoj Žižek

Hitzostea: Imanol Galfarsoro

Itzultzailea: Danele Sarriugarte

Txalaparta, 2020

Saiakera



Munduan aurrekaririk gabeko pandemia bete-betean, Slavoj Žižek filosofo esloveniarra zirtolari eta kementsu dator beste behin ere. *Pan[de]mic!* zen jatorrizkoan, eta euskarazkoak gorde du izenburuko hitz-jokoa, izua izan baita pandemiarekin batera etorri denetako bat. Estilo arin eta bizian, koronabirusak bistan utzi digun munduaren analisi zorrotz bat egiten du saiakera labur honetan, eta, finean, galdera “simple” bat: zer egin behar dugu orain, barbarismoa ezarri, ala komunismoa alde edo moldez berrasmatu?

Birusak gure bizitzaren oinarriak desegingo ditu, ari da, eta horrek, sekulako sufrimendua sortzeaz gain, izugarrizko kalteak eragingo

ditu. Imanol Galfarsorok hitzostean dioen bezala, Žižeken ezaugarri nagusietakoa bikoiztasuna da, eta, oro har, ezkorra da pandemiak eraginda gizartea hobera aldatuko denik. Liburuaren hasiera-hasieratik adierazten du, bestalde, pandemiak ez gaituela zuhurrago bihurtuko.

Ezkortasun hori, dena den, ez da liburu honetan gailentzen. Žižeken arabera, erantzuna kolektiboa eta komuna denari begiratzetik dator. Alde horretatik aldarrikatzen du komunismoa, etorkizunerako antolaketa global berri bat bezala ulertuta; ez baitu kapitalismoaren amaiera iragartzen, desiratzen baizik. Eta ez da inozoa, Žižekek ongi baitaki benetako komunismoaren iraganeko esperientziaren egiaz: desastrea,

katastrofea... Hala eta guztiz ere, “komunismo berrasmatu bat” darabil, salbamendu joka bakarra delakoan, koordinazioa eta elkarkidetzaz azpimarratzeko garaia sekula ez baita izan hain premiazkoa.

Amek ez dute

Katixa Agirre.

Elkar, 2018

Narratiba



Amatasuna eta literatura. Bi emakume, bi ama gazte. Nobelaren narratzailea idazle arrakastatsua da baina amatasuna dela-eta idazketa prozesua albo batera utzi behar izan du bolada batez bederen. Jade/Alice bere ume bikiak hil ditu, bere eskuz baineran itota. Narratzailea jabetuko da aspaldian Jade/Alice ezagutu zuela. Kuriositateari izkin egin ezinda, kasua ikertu eta bere nobela berria horretan oinarrituta idaztea erabakitzen du.

Katixa Agirrek istorio tragiko horren bidez sorkuntzari buruzko hausnarketak egiten ditu, luzaroan gogoratzeko modukoak.

Bi sorkuntza: haurra erditu eta heztearena bata, literarioa bestea. Amatasunaren beste aldea erakutsiko digu gordin. Ilargia bezala, gehienetan alde onez hitz egiten baita, argitasunaz eta edertasunaz, baina apenas ilargiaren beste aldeaz, horren atsegina ez den horretaz. Paraleloan sorkuntza literarioaren gora beherak ere azalduko zaizkigu. “Lurralde lokaztua ere kontatu behar dudalako. Ez da beharrian morala, ez da salaketa soziala. Askoz oinarritzekoagoa da.”

Miñan

Amets Arzallus Antia eta Ibrahima Balde.

Susa, 2019

Narratiba



Gure artean ditugu Afrikatik Europara datozen migratzaileak. Mediterraneo itsasoko sarraskien oihartzuna iristen zaigu baina apenas dakigu ezer itsasoko zeharkaldia hasi aurretik ere egin behar izaten duten bidaia latzaz.

Ibrahima Balde Euskal Herrira ia kasualitatez iritsi den gazte ginearra da. Irungo Harrera Sareak lagundu bitartean ezagutu zuten elkar Amets Arzallusek eta berak. Konfiantza harremana eraikita, eta Ibrahimak gauzak kontatzeko duen moduak, poetikak, txundituta, bere istorioa kontatu eta liburu batean biltzeko proposamena egin zion Arzallusek.

Baldek, lehen pertsonan kontatzen du bere bizitza. Kamioi gidaria izan nahi zuen Konakryn, Gineako hiriburuan. Baina amak Alhassane anaia txikiak Libiara alde egin zuela esan zionean bere destinua aldatu zen. Fikzioa behin eta berriz gainditzen

duen errealtate gordin honek eta Ibrahimak hitzez bost sentimenak biziarazteko duen gaitasunak zirrara eragiten dute. Miñan-ek pularrez “anaia txikia” edo “ahizpa txikia” esan nahi du. Miñanen [anaia txikiaren] bilaketa da Ibrahimaren istorioa. Bidean kontatzen ditu Malin Taalandan pertsonen trafikoak nola funtzionatzen duen, basamortu amaigabea, Aljeria, Libian bizitzak nola hutsaren hurrena balio duen, esklabutza eta tortura, itsasoa zeharkatzeko “programen” zain egoteko “trankiloak”, Maroko.

“Paperik gabe bizi zarenean ez duzu ahuntz batek baino gehiago balio”, dio Taalandatik irteteen. “Hiltzeko gogoak ikara jaten du”, Libian. “Batzuk basamortuan, besteak itsasoan. Hilotzak han daude, guk mugitzen segitzen dugu. Hori da diferentzia. Baina gure mugimenduak beste norbaitek antolatzen ditu”.

Euskal demokrazia patriarkala

**Jule Goikoetxea, Lore Lujanbio,
Zuriñe Rodríguez eta Estitxu Garai.**

Eztabaida. Elkar, 2020

Saiakera



Lan honekin eman nahi dizueguna [...] *patriarkatu neoliberalak ulertzeko sistema kontzeptual bat da*- argi azaltzen dute hasieratik bertatik egileek. Euskal demokraziaren azterketa mardula topatuko du irakurleak. Ez edonolako azterketa, gure errealitatearen sakoneko ulerkerak ahalbidetzeko marko bat proposatzen dute. Ezagutzen dugun demokrazia eredu hau patriarkatuarekin eta erregimen liberalarekin jartzen dute elkarriketan, inguratzen gaituen errealitatearen ikuspegi kritikoa elikatuz. Euskal demokraziak izaera liberal eta patriarkala zertan duen sakontzeko saiakera da. Patriarkatua egiturazkoa da Euskal Herrian ere bai.

Zer eta nola neurtu patriarkatu eta ongizate erregimen liberalen arteko harremana? Nolako da Euskal Herriko¹ demokraziaren kalitatea? Zertan da gure herria patriarkala? Eta zertan liberala? [des]Merkantilizazio eta [des]familiarizazio joerak izango dira erakusle garrantzitsuak horretarako. Lehenaren bitartez, merkatuarekiko dugun dependentzia maila aztertu dute. Egungo sistema kapitalistetan enpleguaren beharra dugu bizi ahal izateko² baina, dependentzia hori ezberdina dela

ikusiko dugu herrialde bakoitzaren sistema politiko-publikoaren norabidea eta erakunde publiko horien gaitasunen arabera. Hots, merkantilizazio maila eta erakunde publikoek ongizatean duten eragina [edo ez eragina] dute aztergai.

Halako zerbait gertatzen da familiarizazio mailarekin ere. Kasu honetan, [des]familiarizazio tendentzien bitartez, emakumeek gizonen baliabideekiko [haien soldatekiko, eskubideekiko eta kapitalekiko] duten dependentzia aztertu dute. Eta hein berean, ongizate estatuetan modu eta intentsitate maila ezberdinetan bada ere emakumeek musutruk egiten duten lanetan nola eraikiak diren bistaratu. Bi tendentzia hauek elkarlotuz gure demokraziaren kalitatea aztertzen dute liburuan zehar.

Hein berean, sistema patriarkal eta liberal horren birstortzea nola eta nondik ematen den aztertzen dute egileek. Horretarako lau dimentsio eta mekanismo ezberdinetan sakontzen dira. Dimentsioak liburuak beraren kapitulazio ere badira: lan ordaindua, lan ez ordaindua, estatua [baino gure kasuan ongizate erregimena] eta eremu sozio-politikoa dituzte aztergai. Biolentzia zuzen, sinboliko

eta materialaren mekanismoak ere ikertzen dituzte. Zer gertatzen da horietako bakoitzean? Nola ematen dira harreman patriarkalak eremu bakoitzean? Eta nola elkar elikatzen dira?

Eta noski, autore hauek hasieratik ere argi uzten duten bezala gure gaiko mundua hobeto ulertzeko, xeheki aztertzeke eta eraginkorki iraultzeke asmoa badu liburuak. Erakunde, espazio eta baliabide publikoen zabaltzearen aldeko agertuko dira [hauekiko kritiko izanik ere]. Hala nola, gizarte babesera begirako politika publiko sendoen beharraz [etxebizitza, osasun sistema, zahartzaroa, egitura federalak, hezkuntza, lanen banaketa,...] eta hauekin batera, kalitate demokratiko nahiz ongi izateaz eta proposamenez arituko dira azken partean.

Liburu honetan, datu kuantitatibo andana eta elkarriketa kualitatiboetatik ateratako azterketa aurkitu ahal izango duzue. Hipotesi batetik abiatua: gure ongi izate erregimena familiarizazio eta merkantilizazio maila handikoa da, hots, demokrazia kalitate baxukoa, egia ote?

1 Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Euskal Hirigune Elkargoko datuak osatu dituzte liburuan Gaindegiaekin batera, nahiz eta, azterketarako oraindik datu askoren beharra eta, lortzeko zailtasunak, azpimarratzen dituzten.

2 Amaia Perez Orozco soldataren esklabutzari buruzko logika perbertsoaz arituko zaigu ere zentzu berean.

¿Que horizonte?

Hegemonía, Estado y revolución democrática

Álvaro García Linera eta Íñigo Errejón.

Lengua de trapo. 2020

Saiakera



Lengua de trapo argitaletxeak Alvaro Garcia Linerak eta Iñigo Errejonek 2018ko apirila eta 2019ko otsailaren bitartean, hegemonia, estatua eta boterearen mugaz izandako elkarrizketa luze bat eskaintzen digu liburu interesgarri honetan.

Liburua estatuari buruzko teoria politikoari buruzkoa da. Baina ez da liburu teoriko bat. Bi egile aditu eta arituen arteko elkarrizketa honek bi galdera nagusiri erantzuten die. Zergatik desobeditzen du herriak? Hegemoniaz ari dira, funtsean, gobernariaren eta herritarren arteko tolerantzia prozesuak nola hausten diren eta zerk bultzatzen dituen jendartean aldaketa prozesuak burutzera. Eta nola parte har dezakete ezkerreko indarrek prozesu sozial horietan eta prozesu horiek estatu dinamika bilakatu.

Elkarrizketa bi galderek zeharkatzen dute, aldaketa politikorako zailtasunek ezkerreko indarren jardura determinatzen dutelako eta bi egileak zailtasun horien lekuko zuzena izan direlako. Lineraren kasuan, Boliviako gobernua 14 urtez

izan ondoren, estatu kolpea sufritu eta guzti. Eta Errejonen kasuan, 2014ean Podemos sortu zenetik koalizio gobernurainoko prozesuan aktore inportantea delako nahiz eta orain MAS pais alderdian izan. Liburuak ordea ez du Boliviako zein Espainiako Estatuako egoerari buruzko deskripzio bat egiten. Alderantziz, nola ulertu estatua, eta nola eraldatu? Hori da haria.

Hausnarketa hori liburuaren azken partean agertzen bada ere, denetan presente dago. Eta interesgarria da estatuari buruzko hainbat egileren teoriak ulergarri egiten dituelako. Esan daiteke teori horiek hurbiltzen dizkigutela bi intelektual militante hauek. Nola ulertu, beraz, estatua hainbat dikotomia zaharrak gaindituz: estatu-gizartea, estatu-tresna edo estatu -klase bezala? Egileek estatua erlazio sozial gisa ulertzen dute, botere sinbolikoaren monopolioa duena eta administartzaren koadroen beharra dituen. Alvaro Garcia Lineraren hitzetan estatua "zeharkatzen gaituen harremana da". Errejon eta Garcia Lineraren

hausnarketek ez diete ezkerrearen estatuaren aurrean izan dituen beldur eta tabuei bizkar ematen, eta argi uzten dute gobernu onak jendartearen proiektua izan behar duela baina begi bistatik galtzeke estatua badagoela, eta berau eta okupatu egin behar dela, bere mugak dituen arren. Izan ere, estatua gizartea da eta gizartea estatua. Liburu hau irakurtzeko beste arrazoietako bat prozesu eraldatzaileen lorpenei buruzko iraunkortasunaz dagoen gogoeta da, nola egin indar demokratikoek itzuliezinezko transformazioak gauza ditzagun, auzia ez delako soilik estatua kudeatzea, eraldatzea baizik. Liburua hausnartzeko paregabea da. Halere, hutsune bat ikusi diogu: hitz egin daiteke estatu eraldakuntza prozesuaz plurinazionalitatea aipatu gabe? Faltan bota dugu Errejonek horri buruzko hausnarketa Linerari eskatzea. Izan ere, funtsean, lurraldetasunaren krisia eta zehazki Kataluniaren auzia gaurko espainiako estatuaren eraldaketarako gakoa delako.

Westworld

Jonathan Nolan eta Lisa Joy.

HBO [2016-2020]

Telesaila

Xabier Landabidea



Michael Crichtonek zuzendutako filman [1973] – bai, Jurassic Park-eko Michael Crichton –oinarritutako HBO telebista ekoizte-txe entzutetsuaren zientzia fikziozko super-ekoizpena.

Sistema errepresibo perfektua jolas parke bat izan daitekeela era-kusten digu telesail honek. Plazerra eta jokoa oinaze eta tortura existenzialean oinarrituta. Batzuen plazererako besteen tortura. Zientzia fikzioa noski, errealitatean oinarririk batere ez duen distopia hutsa.

Westworld ikus-entzunezko testu konplexua da. Kipula baten geruzak [edo Adimen Artifizialaren eremu fikziozkoetan txipli-txapla ari garela Matrioshka burmuin bezala egituraturako narrazioa. Geruza bat ulertzen duzunean hurrengo geruzara bidaltzen zaitu telesailak, aurrekoa problematizatuz, hedatuz, zalantzan jarritz erreala eta simulatua, artifiziala eta naturala, ametsa eta memoriaren arteko dantza eder baina terriblean.

Westworld, finean, askatasunaren eta erantzunkizunari buruzko fikzioa da. Borroka dago bere muinean: biolentziaren izaeraren inguruko hausnarketa fantastiko edo, zehatzago esanda, zientzia fikziozkoa. Mugitzen ez denak ez ditu kateak sentitzen, eta auto-kontzientziaren garapenak inplikazio etiko eta politiko indartsuak ditu. Mundu osoa dardarka jartzeko bezain indartsuak.

Azpimarratzekoak

- Adimen artifizialaren garapenak eta autokontzientziak dakartzan inplikazioen esplorazio uste baina konplexuagoa.
- Ikus-entzunezko formaren aldetik lan ezin ederragoa.
- Denboraldi bakoitzak (oraingoz 3) aurreko denboraldia problematizatzen du, irakurketa geruza berri bat eskainiz.
- Dolores Abernathy eta Maeve Millay pertsonaien dizdira. Interesgarria protagonistarik garrantzitsuenak emakumezkoak izatea gainera.


El pueblo gitano contra el sistema-mundo

Reflexiones desde una militancia feminista y anticapitalista

Pastora Filigrana.

Akal. 2020

Saiakera



Este libro parte de una idea: “convencer a los payos que sueñan con un mundo mejor de que, para alcanzarlo, hay que ser como los gitanos”, Esa es la idea y la hipótesis; los gitanos son la inspiración para pensar en formas de cooperación y resistencia al modelo de producción y consumo imperante. El pueblo gitano es un pueblo perseguido, humillado, llevado a los márgenes, reapropiado de sus símbolos culturales. La historia gitana, es, por lo tanto, una historia de persecución y castigo. Pero, sobre todo, es la historia de un pueblo que no se doblega, y que sigue vivo gracias a sus ansias de libertad.

Filigrana hace un repaso del sistema mundo del capitalismo, y como los gitanos han formulado estrategias para escapar de éste, practicando otras lógicas. En el libro se analiza la esencialización y la criminalización que ha sufrido el pueblo gitano durante décadas, y la ideología dominante detrás de esta criminalización. En esa crimina-

lización, se hace hincapié en las principales lecturas esencialistas que se hacen de “lo gitano”; desde la supuesta falta de integración, su “gracia”, la venganza de la ley gitana, el machismo mayoritario en la cultura gitana... Pastora desmonta, uno a uno, todas estas lecturas reduccionistas y estereotipadas sobre los gitanos, para enmarcarlos dentro de una estrategia de criminalización y dominación de un pueblo que no acepta el sistema mundo hegemónico blanco y occidental.

Para terminar el libro, Filigrana realiza un análisis sobre el debate en torno al sujeto aglutinador de la izquierda transformadora. “¿Es la clase obrera ese elemento aglutinador?”, se pregunta. Para Filigrana esta propuesta es insuficiente, ya que rara vez pueden verse luchas multitudinarias “donde los migrantes sin papeles, las abuelas cuidadoras, los funcionarios de la educación pública, los gitanos

del gueto o las mujeres directivas lleven a cabo una acción política conjunta bajo la conciencia de que todos tienen que trabajar para vivir”. Pastora aboga por una articulación de las luchas siendo conscientes del lugar que cada uno ocupa en la jerarquía de humanidades actual. Una vez hecho eso, podríamos empezar a mirar de otra forma a “los otros”, atendiendo a esa diversidad de malestares, para entablar un diálogo que supere la fragmentación de los sujetos de emancipación populares.

En conclusión, un libro imprescindible que recomendamos leer cuanto antes.

